Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Departamento de Relaciones Ciudadanas e Institucionales
Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia

# Nafarroako Foru Komunitatean 1960tik 1978ra bitarte gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country

**KRIMINOLOGIAREN EUSKAL INSTITUTUA**
INSTITUTO VASCO DE CRIMINOLOGÍA

Tel.: 943 01 83 81
torturaproiektua.ivac-krei@ehu.es

2019ko ekaina

**Nafarroako Foru Komunitatean 1960tik 1978ra bitarte gertatutako tortura eta tratu txarrak ikertzeko proiektua**

__Aurkibidea__


**1.- Ikerketa taldearen antolaera**
Ikertzaile taldearen osaera.

**2.- Sarrera**
Ikerketaren beharraren eta egokitasunaren justifikazioa.

**3.- Definizioak, esparru kontzeptual eta juridikoa**
3.1.- Torturaren, tratu krudelaren, ankerraren eta tratu umiliagarriaren definizioa: Nazio Batuak eta Europako eskualde eremua
3.2.- Torturaren eta tratu txarren aurka 1960tik 1978ra bitarte estatuan indarrean egon zen legeria
3.3.- Biktimen eskubideen bermearen inguruan Espainiak bere gain hartu dituen nazioarteko betebeharrak. Amnistiaren Legea eta nazioarteko araudia betetzea.
3.4.- 1960tik 1978ra bitarte askatasunaz gabetutako pertsonen testuingurua eta tratamendua
3.4.1.- Giza Eskubideei buruzko efemerideen zerrenda eta adibide batzuk
3.4.2. 1960tik 1978ra bitarte Iruñean izandako atxiloketa garrantzitsuak
3.4.3.- Torturen eta tratu txarren salaketak
3.4.4.- Ordena Publikoko Auzitegia

**4.- Metodologia eta egindako jarduketak**
4.1.- Erabilitako metodologiaren deskribapena
4.2.- Ikerketa gauzatu bitartean egindako jarduketak

**5.- Ikerketaren emaitzak**
5.1.- Analisi estatistikoa
5.1.1.-Helburuak eta metodoa
5.1.2.-Laginaren ezaugarriak eta aztertutako kasuak berrestea
5.1.3.-Salatutako kasuen lurralde banaketa
5.1.4.-Atxiloaldiaren iraupena
5.1.5.-Salatutako torturaren eta tratu txarren teknikak

**6.- Ondorioak eta gomendioak**

**Eranskinak**
I. eranskina: Ukituei igorritako dokumentazioa
II. eranskina: Datuak biltzeko fitxa (File Maker)

## 1.- IKERKETA TALDEAREN ANTOLAERA

**Zuzendaritza:**

- Francisco Etxeberria (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra)
- Laura Pego (Zuzenbidean doktorea. Kriminologiako masterra. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)

**Ikerketa taldea:**

- Francisco Etxeberria (Medikuntzan doktorea. Lege eta Auzitegi Medikuntzan mediku espezialista. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle titularra)
- Laura Pego (Zuzenbidean doktorea. Kriminologiako masterra. Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Leire Padilla (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Rakel Perez (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Eva García (Maisutzan diplomaduna, Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterra, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Izaskun Rekarte (Antropologian graduduna)

**Dokumentazioa eta informatizazioa:**

- Leire Padilla (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Izaskun Rekarte (Antropologian graduduna)
- Rakel Perez (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Maider Urretabizkaia (Kriminologian graduduna)
- Sabino Ormazabal (Dokumentazioko espezialista)

**Ikerketa kuantitatiboa eta analisi estatistikoa**

- Rakel Perez (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)
- Eva García (Maisutzan diplomaduna, Gizarte eta Hezkuntzako Eremuen Ikerketa Masterra, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)

**A) Ukitutako pertsonen informazio orokorra eta espezifikoa biltzea eta tratatzea errolda egiteko**

**Lehen mailako iturriak, biktimen lekukotzak eta salaketak:**

- Zuzendaritza: Francisco Etxeberria (Euskal Herriko Unibertsitatea)
- Izaskun Rekarte (Antropologian graduduna)
- Maider Urretabizkaia (Kriminologian graduduna)

**Bigarren mailako iturriak, bilketa, berrikusketa eta analisia:**

- Zuzendaritza: Laura Pego (Zuzenbidean doktorea, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Leire Padilla (Kriminologian graduduna, Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea)

**Analisi juridikoa:**

- Zuzendaritza: Laura Pego (Zuzenbidean doktorea, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Aholkularitza: Ignacio Muñagorri (Zigor Zuzenbideko katedraduna, Kriminologiaren Euskal Institutua)
- Aholkularitza: Ana Pérez Machío (Zigor Zuzenbidean doktorea, Kriminologiaren Euskal Institutua)

**Erakunde laguntzaileak eta artxibo iturriak:**

- Kriminologiaren Euskal Institutua
- Tortura prebenitzeko eta salatzeko koordinakundea (KPSK)
- Amnistia Internazionala
- Torturaren Aurkako Taldea – TAT
- Euskal Memoria
- Argituz
- Goldatu
- Lazkaoko Beneditarren Fundazioa

## 2.- Sarrera

### Ikerketaren beharraren eta egokitasunaren justifikazioa.

Torturak urratu egiten ditu giza eskubideak, eta larriki gainera. Nafarroako gizartea ere kezkatuta dago torturak egiten direla susmatzen duelako, eta gai hori kontuan hartzen da eztabaida politikoan. Foru Komunitate honetan salaketa ugari egin ziren 1960tik 1978ra bitarteko aldian, eta mota askotako kasuak izan ziren. Horien artean, nabarmentzekoak dira errepresio politiko frankistak eragindakoak.

Diktaduraren garaian, agintearen ordezkariek modu sistematiko eta orokorrean erabiltzen zituzten tortura eta tratu txarrak oposizio politiko edo sindikaleko kideen atxiloketetan. Azterlan honetan elkarrizketatutako biktima batzuen ustez, diktaduraren aurkako guztiek zekiten, atxilotzen bazuten, tortura horiek pairatuko zituztela, besteak beste. Testuinguru hartan, ez zegoen torturen ikerketa edo prebentzioa ahalbidetzeko bermerik. Urteak igaro dira, eta, hala ere, garai hartako torturaren eta tratu txarren biktimek aitorpen sozial eta juridiko eraginkorrik gabe jarraitzen dute, eta ez da erreparazio politika egokirik ere egin.

Errealitate horretaz jabetuta, Nafarroako Gobernuaren Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak, 2018an, ikerketa bat eskatu zion Kriminologiaren Euskal Institutuari (IVAC-KREI), helburu honekin:

*Torturak eta tratu txarrek 1960tik 1978ra bitarteko aldian Nafarroako Foru Komunitatean benetan izan duten eragina ezagutzea, eta aitorpenaren eta erreparazioaren arloan egon daitezkeen ondorioak ezartzea.*

Ikerketa taldearen ustez, egokia da aukera horretaz baliatzea irizpide zientifiko, zorrotz eta independenteetan oinarritutako ikerketa formal bat egiten hasteko, torturaren fenomenoak 1960tik 1978ra bitarteko aldian izan duen benetako eragina neurtu ahal izateko. Lan honi esker, fenomeno horren errealitatea ezagutzen ahalko da eta dagozkion aitorpen eta prebentzio neurriak bideratzen ahalko dira.

Nafarroako Gobernua biktimen tratamenduaren arloan egiten ari den ekintzetako bat da ikerketa hau. Gainera, duela gutxi, Nafarroako Parlamentuak martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea –eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa– onartu zuen eta apirilaren 16ko BOEn argitaratu zuen, lan horri jarraitutasuna emateko.

## 3.- Definizioak, esparru kontzeptual eta juridikoa

### 3.1.- Torturaren, tratu krudelaren, ankerraren eta tratu umiliagarriaren definizioa: Nazio Batuak eta Europako eskualde eremua.

Azterlanaren esparru kontzeptual gisa, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea eta askatasunaz gabetutako pertsonei eragindako torturari eta tratu txarrei buruzko arau espezifikoak aipatzen dira.

1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean nahiz 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean debekatuta daude tortura eta bestelako tratu edo zigor krudelak, ankerrak eta umiliagarriak. Giza eskubideak babesteko Europako sistemaren funtsezko elementu den Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko 1950eko Europako Hitzarmenak ere berariaz debekatzen ditu jardunbide horiek.

Alabaina, testu horietako bakar batek ere ez du torturaren eta beste tratu txarren definiziorik ematen. Bien bitartean, itun horien kontrol organoek emanen diete edukia kontzeptu horiei. Ildo horretan, azpimarratu behar da, halaber, pertsona guztiak torturaren eta beste tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarri batzuen aurka babesteari buruzko 1975eko Deklarazioa garrantzitsua izan zela hortik aurrerako torturaren definizioetan.

Hori guztia modu grafikoan jaso da ondorengo koadroan:

| URTEA | Unibertsala | Europako jurisdikzioa | Estatuko jurisdikzioa |
|---|---|---|---|
| 1948 | **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala**<br>5. artikulua.<br>*Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta umiliagarririk eman ere.*<br><br>Alabaina, EZ DU TORTURA DEFINITZEN | | |
| 1950 | | **Giza Eskubideen Europako Hitzarmena**<br>3. artikulua<br>*Ezin izanen da inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu anker edo umiliagarririk eman ere.*<br>Alabaina, EZ DU TORTURA DEFINITZEN | |
| 1966 | **Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna**<br>7. artikulua<br><br>*Inork ez du torturarik pairatuko, ezta tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarririk ere. (…)*<br><br>Alabaina, EZ DU TORTURA DEFINITZEN | Batzordearen eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren (GEEA) ebazpenetan oinarritutako definizioa | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| **1978** | Giza Eskubideen Batzordearen ebazpenetan oinarritutako definizioa<br>Giza Eskubideen Europako Batzordea eta GEEA ere kontuan hartu dira | Giza Eskubideen Europako Batzordearen eta GEEAren ebazpenetan oinarritutako definizioa | **31/78 Legea, uztailaren 17koa**, 1973ko Zigor Kodeko tortura delitua erreformatzekoa;<br>204 bis artikulua<br>Agintari edo funtzionario publiko batek, ikerketa polizial edo judizial batean aitorpen edo testigantza bat lortzeko, Kode honetako 8. tituluko 1. eta 4. kapituluetan eta 12. tituluko 6. kapituluan aurreikusitako delituren bat eginen balu, (...)<br><br>**Espainiako Konstituzioa**<br>*15. artikulua*<br>Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo umiliagarririk ere. (..)<br>Alabaina, EZ DU TORTURA DEFINITZEN |

Horrela, beraz, 1984ko abenduaren 10eko Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien aurkako Konbentziora arte ez da estatu sinatzaileentzako loteslea den nazioarteko tratatu batean jasoko torturari buruzko definizio adostu bat. Honela dio definizioak:

“1. *Konbentzio honen ondoreetarako, “torturatzat” ulertuko da pertsona bati begira gauzatzen den egintza oro, hala nahita min edo sufrimendu larriak, fisikoak nahiz mentalak eragiten dizkiona, horren helburua dela berarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitorpenen bat lortzea, gauzatu duen edo*
*ustez gauzatu duen egintza batengandik zigortzea, edo pertsona hori edota beste batzuk ikaratzea edo derrigortzea, edota edozein bereizkeria motatan oinarritutako arrazoi batengatik, betiere, min edo sufrimendu horiek eragiten baditu funtzionario publiko batek nahiz funtzio publikoak gauzatzen dituen pertsona batek, edo halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten dutenek.*
*Ez dira tortura gisa hartuko zehapen legitimoen ondoriozko min edo sufrimenduak, edo zehapen horiei datxezkienak nahiz zehapen horiei begira intzidentalak direnak.*
*2. Artikulu honek ez die kalterik eginen nazioarteko tresnei edo legeria nazionalei, halakoek babes gehiagoko xedapenak jaso dituztenean edo jaso ditzaketenean”.*

Bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarrien debekua 16. artikuluan dago jasota:

*“1. Estatu alderdi orok konpromisoa hartzen du, bere jurisdikziopeko edozein lurraldetan debekatzeko tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarriak diren bestelako egintza batzuk, nahiz eta halakoak tortura ez izan, 1. artikuluan definitutakoaren arabera, baldin eta egintza horiek gauzatzen baditu funtzionario publiko batek edo eginkizun ofizialak betetzen dituen beste pertsona batek, edo*

*halakoek bultzatuta edo halakoen baimenarekin edo oniritziarekin jarduten duenak. Bereziki*
*aplikatuko dira 10., 11., 12. eta 13. artikuluetan aipatutako betebeharrak, torturari egindako erreferentziak ordeztuta bestelako tratu*
*edo zigor krudel, anker edo umiliagarriei egindakoekin".*

Hori guztia kontuan hartuta, eta Hitzarmen hori gure azterlanaren aldia baino geroagokoa izan arren (1960-1978), duten garrantziarengatik, 1. eta 16. artikuluetan zehaztutako elementuak erabiliko dira ikerketa honetan erregistratutako kasuak hautatzeko.

Egiaztatutako kasuen larritasuna desberdina da, hau da, horietako batzuk ez datoz bat torturen definizioarekin baina tratu anker edo umiliagarri gisa sailkatzen ahal dira. Nolanahi ere, azterlanak ez du banaketa hori egiten, ez baita hori bere helburua, ezta xedea ere. Horregatik, kontuan izan behar da "torturak eta tratu txarrak" aipatzen ditugunean, "atxilotuen osotasunaren aurkako legez kontrako jardunbide multzoa" adierazi nahi dugula. Gaineratu behar da, halaber, kasuak kuantitatiboki eta kualitatiboki aztertzen direla. Horri esker, giza duintasunaren aurkako eraso larria diren egitate horien irismena, narratiba eta ezaugarriak identifikatzen ahal dira.

Halaber, adierazi behar da azterlan honetan jasotako datu enpirikoek desberdintasun nabarmenak dituztela hainbat alderdiri dagokienez: erabilitako legez kontrako jardunbide eta teknikak, atxiloaldiaren iraupena eta atxiloketa baldintzak, sexua, garaiak eta denboraldik, polizia kidegoak eta abar.

## 3.2.- Torturaren eta tratu txarren aurka 1960tik 1978ra bitarte estatuan indarrean egon zen legeria

Zigor legeriaren alorrean, 1960tik 1978ra bitarte indarrean egon ziren 1932ko Zigor Kodea (1932ko urriaren 27ko Legea), 1963ko Zigor Kodea (Testu berrikusia, martxoaren 28ko 691/1963 Dekretua) eta, ondoren, 1973ko Zigor Kodea (irailaren 14ko 3096/1973 Dekretua). Zigor Kodea aldatzen duen uztailaren 17ko 31/78 Legea aztertutako aldiko azken hilabeteetan bakarrik egon zen indarrean, baina oso garrantzitsua izan zen. Izan ere, haren bidez 204bis artikulua sartu zen Zigor Kodean.

1973ko Zigor Kodeari dagokionez, adierazi behar da torturaren edo tratu txarren antzeko jokabideak zehatzen dituzten manu batzuk sartu zirela; esate baterako, 187.5 artikulua, espetxeetako funtzionarioek presoen aurka beharrik gabeko gogortasuna erabiltzeari buruzkoa.

VICENTE CHAMORROren iritziz, 1973ko Kodearen 406. artikuluaren 5.

zirkunstantzian ageri den “ankerkeriaren” deskribapena izugarri hurbiltzen da tortura kontzeptura:

5. *Ankerkeriaz, ofendituaren mina nahita eta bihotz gogorrez handituz.*

Hala eta guztiz ere, garai hartako ordenamenduak askatasunaz gabetutako pertsonei ematen zizkien bermeak ezagutzeko, zigor arloko prozedurari buruzko araura jo behar dugu. Horrela, 1882ko Prozedura Kriminalaren Legeak (PKL) garrantzi berezia hartzen du gai honetan, atxilotuen eta presoen alde eskaintzen dituen eskubideengatik. Eskubide horiek indarrean egon ziren azterlan honen xede den diktadura frankistaren aldian ere.

Lege horrek ikerketa prozedura eta mekanismo batzuk jasotzen ditu, gertatutako egitateen errealitate materiala ikertzeko xedearekin. Nolanahi ere, arauak bermatzen du horretarako erabilitako metodoek pertsonen gizatasuna eta duintasuna zorrotz errespetatu behar dituztela[1].

PKLn jasotzen diren eskubideen eta bermeen artean, honako hauek aipatuko ditugu:

- Behin eta berriz aipatzen da delituak ikertzean debekatuta daudela derrigortzeak edo indarkeria. Besteak beste, ohartarazten da legez kontrako metodoen bidez lortutako aitortza ez dela oinarri baliodun izanen pertsona kondenatzeko.

  Adibidea: *954.3 artikulua*
  *3. Epaiaren ondoriozko kondena norbaiti ezarri zaionean, baldin eta kondenaren oinarria izan bada arlo kriminaleko auzian geroago epai irmoaren ondorioz faltsua jo den agiria edo lekukotza,* ***indarkeriaren edo larderiaren bidez errudunari ateratako aitorpena****, edo, hirugarrenak betearazitako edozein egitate zigorgarri, betiere gorabehera horiek epai irmoaren bidez adierazita daudenean helburu horrekin egindako auzian. Helburu horiek aintzat hartuta, auziaren egitate eztabaidagarriak argitzeko beharrezkoak diren frogak egin ahal izanen dira; baina aurreratu eginen dira, inguruabar berezien ondorioz epai irmoa emateko oztopo izan daitezkeenak, edo hori ezinezko egin dezaketenak, epai hori berrikuspenaren oinarri izanik.*

---

[1] VICENTE CHAMORRO, J; *La tortura, aspectos legales* (Tortura, legezko alderdiak). In: *Contra la Tortura*. Fontanella, Bartzelona, 1978, 234. or.
Jesús Vicente Chamorro Alacanteko Probintzia Auzitegiko fiskala izan zen, eta 1978an Auzitegi Goreneko arlo zibileko salako fiskalburu izendatu zuten. Zigor Zuzenbideko irakasle ere izan zen, Valentziako Unibertsitatean eta Madrilgo Konplutentsean. 1968an, *Justicia Democrática* talde klandestinoaren sortzaileetako bat izan zen.

- Auzipetuei egiten zaien galdeketan errespetatu behar diren jarraibideak argiak dira, eta adierazten dute galdeketa ikerketaren xede diren egitateak ikertzeko izanen dela. Auzipetuari egiten zaizkion galderei dagokienez, 389. artikuluan honako hau adierazten da:

  *Galderak zuzenekoak izanen dira, eta inola ere ez dira eginen modu maltzur edo erakargarrian.*

- Askatasunez deklaratzeko eskubidea bermatzen da. Jasotako xedapenak “auzipetuari” buruzkoak dira, baina “inputatuari” ere aplikatu behar zaizkio[2]. Berariaz adierazten da zigor arloko prozesuan norberaren aurka edo norberaren interesen aurka adierazpenik ez egiteko eskubidea; adibidez, emaztea, senarra eta beste senide batzuk ez daude behartuta auzi kriminalean deklaratzera. Legeak, halaber, auzipetua ez du behartzen egiten zaizkion galderei erantzutera:

  *392. artikulua. [Auzipetuak deklaratzeari uko egitea]*
  *Auzipetuak erantzuteari ezezkoa ematen badio, edo ero-, gor- nahiz mutu-itxurak egiten baditu, instrukzio-epaileak ohartaraziko dio, beraren isiltasuna eta itxurazko gaixotasuna gorabehera, aurrera eginen duela prozesuaren instrukzioak.*

- Auzipetuaren aitortzak ez du epailea egitateak ikertzeko betebeharretik salbuetsiko. Horrela, VICENTE CHAMORROk dioenez, aitortzarekiko mesfidantza agertzen da arauan, PKLren 699. edo 820. artikuluetatik ondorioztatzen den bezala[3].

  *406. artikulua. [Auzipetuaren aitorpena] Auzipetuaren aitorpenak ez du instrukzio-epailea askatuko eginbide guztiak egitetik, eginbideok beharrezkoak badira aitorpenari eta delituaren izateari buruzko egia eskuratzeko.*

- Berariaz jasotzen da polizia judizialak legezko formalitateak bete behar dituela agindu zaizkion eginbideak egitean, eta ez duela erabili behar legeak baimentzen ez duen ikerketa baliabiderik.

  *297. artikuluaren 3. paragrafoa: Edozein kasutan ere, polizia judizialeko funtzionarioek lege-formalitate guztiak zehatz-mehatz bete behar dituzte*

---

[2] ARAGONES ALONSO, P; *Instituciones de Derecho Procesal Penal,* MESBAR, Madril, 1976, 131. or.
[3] VICENTE CHAMORRO, J; *La tortura, aspectos legales*. In: *Contra la Tortura*. Fontanella, Bartzelona, 1978, 236. or.

*gauzatutako eginbide guztietan, eta euren erantzukizunpean ez dute erabiliko legeak ikerketarako baimentzen ez duen baliabiderik.*

- Presoen eta atxilotuen kontrol judizialaren betebeharra ezarri da.

  *526. artikulua. [Presoen eta atxilotuen egoeraren kontrol judiziala]*
  *Instrukzio-epaileak astean behin bisitatuko ditu udalerriko espetxeak, aurretiaz abisurik eman gabe eta egun zehatzik jarri gabe. Berarekin batera joanen da Fiskaltzako pertsona bat; pertsona hori izan daiteke kasuan kasuko audientziaren fiskalaren eskuordetza ondore horretarako duen udal fiskala. Bestalde, auzitegi hori dagoen tokian, bisita eginen dute audientzia horretako edo beraren arlo kriminaleko salako presidenteak eta magistratu batek, Fiskaltzako pertsona batekin eta instrukzio-epailearen laguntzarekin batera.*
  *Bisitan presoen eta atxilotuen egoerarekin zerikusia duten gorabehera guztien berri izanen dute, eta euren eskumenen araberako neurriak hartuko dituzte, antzemandako abusuak zuzentzeko.*

- Adierazten da legez kontrako egintzen lekuko diren profesionalek salatu egin behar dituztela egintza horiek.

  262. artikuluaren 3. paragrafoa, medikuek salaketa jartzeko betebeharra:
  *Parterik eman ez duena medikuntza, kirurgia edo farmaziako irakaslea bada eta parte horrek beraren lan-jarduerekin zerikusia badu, orduan isuna ezin izanen da izan 125 pezeta baino gutxiagokoa, ezta 250 pezeta baino gehiagokoa ere.*

PKLn jasotako atxilotuen bermeei eta eskubideei dagokienez, ARAGONESek irmotasunez adierazten du guztiz debekatuta dagoela “tormentuaren sistema” eta inputatuaren deklarazioa lortzeko beste edozein bitarteko; jarraian, ondorengo metodo hauek zehazten ditu: *mehatxuak edo promesak, galdera subjektiboak edo maltzurrak, gaueko ordu txikitan egindako galdeketa amaigabeak, foku baten argia begien kontra proiektatuz, sweat box-a eta water cure-a, “hirugarren gradu” ospetsua, hordikeria, eta abar*[4].

Horrekin guztiarekin, VICENTE CHAMORROk zuzen adierazten duenez, eta Prozedura Kriminalaren Legea etengabe indarrean zegoen arren, tortura egitateak gertatu ziren. Errealitate eztabaidaezina da hori eta Amnistiaren Legeak berak ere aitortu zuen. Lege horren arabera, honako hauek sartzen dira arau horren onuradunen artean: funtzionarioek, agintaritzak edo haien agenteek pertsonen eskubideen aurka egindako delituak. 1977ko urriaren 15eko Legearen

[4] ARAGONES ALONSO, P; *Instituciones de Derecho Procesal Penal*, MESBAR, Madril, 1976, 222. or.

2. artikulua.

**Atxilotuaren edo presoaren inkomunikazioa**

Atxilotuen eta presoen eskubideen mugaketa, inkomunikazioa aplikatuz, aurreikusita zegoen Legean, eta 506. artikulutik 511. artikulura bitartekoetan arautzen da. Era honetan:

*506. artikulua. [Behin-behineko espetxeratze inkomunikatua]*
*Atxilotuen edo presoen inkomunikazioak prozedura eragin duen delituari buruzko ikerketetan egindako hitzorduak bideratzeko behar den denbora baino ezin izanen du iraun, eta, oro har, ez du bost egun baino gehiago iraun behar.*
*Inkomunikatua behar bezalako neurriak hartuta bertaratu ahal izanen da Lege honek esku hartzeko aukera ematen dion azterketa-eginbideetara, betiere haren presentziak inkomunikazioaren xedea indargabetzen ez badu.*

*507. artikulua. [Presoaren edo atxilotuaren inkomunikazioa luzatzea]*
*Hitzorduak Penintsulako lurraldetik kanpo, edo distantzia luzera, egin behar badira, inkomunikazioak azpikeria saihesteko zuhurtziaz behar den denbora irauten ahalko du.*

Prozedura Kriminalaren Legearen 527. artikuluan jasotzen da atxilotuen eta presoen eskubideak mugatzen ahal direla inkomunikatuta dauden bitartean. Artikulu horretan adierazten denez, denboraldi horretan "*ezin izanen dituzte izan kapitulu honetan adierazitako onurak eta, horiei dagokienez, aurreko kapituluko xedapenen arabera jokatuko da*", hau da, ez dituzte 520. artikulutik 526. artikulura bitartekoetan jasotzen diren eskubideak izanen.

Gainerako atxilotuei, 520. artikuluak bermatzen zien behin-behineko espetxeratzea atxilotuari edo presoari berari eta haren ospeari kalte gutxien egiteko moduan egin beharko zela. Atxilotuaren askatasuna mugatzean, atxilotua bera ziurtatzeko eta auziaren instrukzioari kalte egiten ahal dioten komunikazioak eragozteko ezinbesteko mugak baino ez dira ezarri behar.

Ez dira kontuan hartuko atxilotuak bereizteari buruzko arauak, 521. artikuluan ezartzen direnak, eta ez da errespetatuko, halaber, atxilotu edo preso orok atxiloketaren helburuarekin eta 522. artikuluan aurreikusitako kartzela erregimenarekin bateragarri diren erosotasunak nahiz zereginak beren kontura lortzeko eskubidea.

523. artikuluan arautzen diren bisitei dagokienez, ezin izanen dituzte inkomunikatuak bisitatu beren erlijioko ministroak, medikuak, ahaideek edo haiekin interes harremanak dituzten pertsonek, edota gomendioak ematen ahal

dizkietenek. Abokatu defendatzailearekin ere ezin izanen du harremanik izan inkomunikazioa indarrean dagoen bitartean.

524. artikuluan jasota dauden gutuneriarako eta komunikatzeko beste bitarteko batzuetarako eskubidea eragotziko da.

525. artikuluan jasota dagoen segurtasun neurri bereziak hartzeko debekua deuseztatu eginen da. Era berean, ez da presoen eta atxilotuen egoeraren kontrol judiziala eginen 526. artikuluan ezarritako protokoloaren arabera:

*"Instrukzio-epaileak astean behin bisitatuko ditu udalerriko espetxeak, aurretiaz abisurik eman gabe eta egun zehatzik jarri gabe. Berarekin batera joanen da Fiskaltzako pertsona bat; pertsona hori izan daiteke kasuan kasuko audientziaren fiskalaren eskuordetza ondore horretarako duen udal fiskala. Bestalde, auzitegi hori dagoen tokian, bisita eginen dute audientzia horretako edo beraren arlo kriminaleko salako presidenteak eta magistratu batek, Fiskaltzako pertsona batekin eta instrukzio-epailearen laguntzarekin batera.*
*Bisitan presoen eta atxilotuen egoerarekin zerikusia duten gorabehera guztien berri izanen dute, eta euren eskumenen araberako neurriak hartuko dituzte, antzemandako abusuak zuzentzeko".*

### 3.3.- Biktimen eskubideen bermearen inguruan Espainiak bere gain hartu dituen nazioarteko betebeharrak. Amnistiaren Legea eta nazioarteko araudia betetzea.

Espainia 1955eko abenduaren 14an sartu zen NBEn. Hala ere, ez zen 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren parte bihurtu 1977ko uztailaren 27ra arte[5]. Urtebete geroago, 1950eko Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Europako Hitzarmenarekin bat egin zuen, 1978ko urriaren 10eko BOEn argitaratutako berrespen dokumentuarekin[6]. Nazioarteko Itun horiek ez ziren indarrean egon aztertutako aldian, Espainia Nazio Batuetako kide izan arren. Argudio hori behin eta berriz erabiltzen da Estatuak torturaren eta tratu txarren biktimei egia, justizia eta erreparazioa eskuratzeko gaur egun duen erantzukizuna ukatzeko.

Eragozpenak are gehiago dira torturaren aurkako Konbentzioa adierazitako daten ondorengoa delako (1984), eta 1987an baino ez zelako indarrean jarri Espainian. Horri guztiari 1977ko Amnistiaren Legearen onarpena gehitu behar zaio, data horretan Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna indarrean egon arren,

---

[5] Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1977ko apirilaren 30ekoa, 9337. or. eta hurrengoak Berrespen dokumentuaren argitalpena.
[6] 1977ko azaroaren 24an Espainia Europako Kontseiluko hemeretzigarren kide bihurtu zen.

krimen horien guztien zigorgabetasuna ahalbidetuko baitu.

Nolanahi ere, planteamendu negazionista horiei kontrajarrita, Nazio Batuek defendatzen dute biktima haien eskubideak indarrean zeudela. Zehazki, torturaren aurkako batzordea argia da eta Estatuari erantzun dio guztiz onartua dagoela torturaren debekua *ius cogens*[7] dela, eta, horrenbestez, tortura egintzen epaitzea ezin duela mugatu ez preskripzioak ez legezkotasun printzipioak[8]. Gogora dezagun 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 5. artikuluak debekatu egiten dituela tortura, zigorrak edo tratu krudel, anker eta umiliagarriak, eta Espainia NBEko kide dela 1955az geroztik.

Jarraian jaso da zer erantzun eman zion Batzordeak Espainiako Gobernuari Estatuak Konbentzioaren 19. artikuluaren arabera aurkeztu zuen txostenari dagokionez (Torturaren aurkako batzordeak Espainiari egindako azken oharrak, CAT/C/ESP/CO/5, 2009ko abenduaren 9a):

> *21. Kontuan hartzen badu ere Estatu alderdiak adierazi zuela Torturaren aurkako Konbentzioa 1987ko ekainaren 26an jarri zela indarrean, eta 1977ko Amnistiaren Legean lege hori eman aurretik gertatutako egitateak aipatzen direla, Batzordeak errepikatu nahi du, torturaren debekuaren ius cogens izaera errotua aintzat hartuta, tortura egitateak epaitzea ez dela legezkotasun-printzipioaren arabera mugatu behar, ezta preskripzioaren ondorioaren arabera ere. Batzordeak, gainera, zenbait interpretazio jaso ditu Amnistiaren Legearen lehen artikuluaren c) apartatuari buruz –non aurreikusten baita amnistia ez dela aplikatuko egitateak "pertsonaren bizitzaren edo duintasunaren aurkako indarkeria larria" izan badira–. Interpretazio horien arabera, tortura beti geratuko litzateke amnistiatutako delituetatik kanpo (12., 13. eta 14. artikuluak).* ***Estatu alderdiak bermatu behar luke tortura egitateei (desagertze behartuak barne) ez zaiela amnistiarik aplikatuko. Horri dagokionez, Batzordeak Estatu alderdiari eskatu dio jarrai dezala eta ahalegin handiagoak egin***

[7] *Ius cogens* honela deskribatzen da Entziklopedia Juridikoan*: "Hitz horien bitartez, zuzenbide hori betetzera behartuta daudenen nahiak alde batera utzi ezin duen zuzenbide inposatzailea edo zehatza izendatzen da, zuzenbide xedatzaileari edo ordezkatzaileari kontrajarrita, azken hori ordezkatu edo alde batera utz baitaiteke xede diren subjektuek nahi izanez gero. Zuzenbide inposatzailea edo ius cogens nahitaez bete behar da, bertako arauek izaera publikoko edo orokorreko interesak babesten dituzten heinean".*

*Ius cogens*-a 1969ko maiatzaren 23ko Tratatuen Zuzenbideari buruzko Vienako Konbentzioaren 53. artikuluan definitu zen lehen aldiz: *"Deuseza da nazioarteko zuzenbide orokorreko aginduzko arau baten aurka dagoen tratatu oro. Konbentzio honen ondoreetarako, nazioarteko zuzenbide orokorraren aginduzko arau bat da Estatuen nazioarteko komunitate osoak kontrako akordiorik onartzen ez duen eta izaera bera duen nazioarteko zuzenbide orokorraren geroagoko arau batek soilik alda dezakeen arau gisa onartzen eta aitortzen duen arau bat"*. Bukatzeko, esan behar da tortura *ius cogens*-ak debekatutako ekintza gisa aitortuta dagoela.

[8] Torturaren aurkako batzordeak Espainiari egindako azken oharrak (CAT/C/ESP/CO/5, 2009ko abenduaren 9a)

***ditzala biktimen familiei laguntzeko desagertuen patua argitzen, haiek identifikatzen eta haien gorpuzkiak lurpetik ateratzen, ahal den guztietan. Era berean, Batzordeak errepikatu du, Konbentzioaren 14. artikuluaren arabera, Estatu alderdiak erreparazioa eta kalte-ordaina jasotzeko eskubidea bermatu behar dizkiola tortura egitateen biktima den orori.***

**Biktimak eta haien eskubideak**

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1985eko azaroaren 29ko 40/34 Ebazpenean, Delituen eta botere abusuaren biktimentzako oinarrizko justizia printzipioei buruzko Deklarazioa onartu zuen[9], eta biktimaren definizio hau ezarri zuen:

*A. "Delituen biktimak"*

*1. "Biktimak" izanen dira estatu kideetan indarrean dagoen legeria penala urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz, kalteak, lesio fisikoak edo mentalak barne, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo oinarrizko eskubideen galera nabarmena jasan dituzten pertsonak, banaka edo taldean.*

*2. Deklarazio honen arabera, pertsona bat "biktimatzat" hartu ahal izanen da, egilea identifikatu, atzeman, epaitu edo kondenatzen den alde batera utzita, eta erasotzailearen eta biktimaren arteko familia-harremana alde batera utzita. "Biktima" hitzaren barnean sartzen dira, gainera, eta, hala badagokio, zuzeneko biktimarekin hurbileko harremana duten ahaideak edo ardurapeko pertsonak, baita arriskuan dagoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak ere.*

*3. Deklarazio honetako xedapenak pertsona guztiei aplikatu ahal izanen zaizkie, inolako bereizketarik egin gabe, arraza, kolorea, sexua, adina, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea, iritzi politikoa edo beste mota batekoa, sinesmen edo praktika kulturalak, egoera ekonomikoa, jaiotza edo familia-egoera, jatorri etnikoa edo soziala, edo eragozpen fisikoa direla medio.*

Deklarazioan jasotako printzipioek biktimen oinarrizko eskubideen multzo bat aitortzen dute:

a) Justizia eta bidezko tratua jasotzea
b) Erreparazio eskubidea

[9] Sobre origen y evolución de la Víctimología, BERISTAIN, A.; "¿La sociedad/judicatura atiende a "sus" víctimas/testigos?" in: *La victimología, Cuadernos de Derecho Judicial*. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Madril, 1993. 166. or. eta hurrengoak.

c) Kalte-ordaina jasotzeko eskubidea
d) Laguntza jasotzeko eskubidea

Geroago, eta gure egunetatik hurbilago, onartu ziren *Giza eskubideen nazioarteko arauen ageriko urraketei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketei begira, biktimek errekurtsoa jartzeko duten eskubideari buruzko oinarrizko printzipioak eta jarraibideak –Batzar Nagusiaren 2005eko abenduaren 16ko 60/147 Ebazpenaren bidez onartu ziren–*. 1985az geroztik denbora igaro bada ere, lehen testu hartako "biktimaren" definizioaren elementu nagusiek bere horretan jarraitzen dute:

> *"Dokumentu honen ondorioetarako, biktima da giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarmena edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larria dakarten egite edo ez-egiteen ondorioz, kalteak, lesio fisikoak edo mentalak barne, sufrimendu emozionala, galera ekonomikoak edo oinarrizko eskubideen funtsezko galerak jasan dituen pertsona oro, banaka edo taldeka. Hala behar denean, eta barne zuzenbidearekin bat etorriz, "biktima" terminoak bere baitan hartuko ditu, gainera, hurbileko familia edo zuzeneko biktimaren ardurapean dauden pertsonak, bai eta arriskuan dauden biktimei laguntza emateko edo biktimizazioa eragozteko esku hartzean kalteak jasan dituzten pertsonak ere".*
>
> *9. Pertsona bat biktimatzat hartuko da baita urraketaren egilea identifikatu, atzeman, epaitu edo kondenatu ez denean ere, eta egilearen eta biktimaren artean dagoen familia harremana gorabehera".*

Azken batean, "biktima" hitzaren nozio zabala dugu, legea urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz, kalte fisikoak edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo beren oinarrizko eskubideen galera garrantzitsua zuzenean edo zeharka jasaten duten subjektu indibidualei edo kolektiboei dagokienez. Eskubideen urraketa pairatu duen pertsona biktimatzat hartuko da egileari kondenarik ezarri ez bazaio edo egilea identifikatu ez bada ere.

Parametro horiei jarraikiz, Europar Batasunaren 2012/29/EB Zuzentarauak –delituen biktimen eskubideei, laguntzari eta babesari buruzko gutxieneko arauak ezartzen dituenak– adierazten duenez, "*Pertsona bat biktimatzat hartu behar da arau-hauslea identifikatu, atxilotu, akusatu edo kondenatu den alde batera utzita eta elkarren artean dagoen familia-harremana alde batera utzita".* Espainiako legeriarako transposizioa Biktimaren Estatutuari buruzko apirilaren 27ko 4/2015 Legearen bidez egin zen.

Espainiako ordenamendu juridikoak hainbat arau izan ditu ildo horretan; lehendabizi "terrorismoaren biktimak" aitortzera bideratutakoak, siglak zituzten talde antolatuek edo banda armatuek (ETA, GAL, BVE eta beste batzuk) egindako indarkeriaren biktimei dagokienez. Ondoren, frankismo garaian hil zituzten biktimak hartu ziren kontuan abenduaren 26ko 52/2007 Legearen bitartez. Lege horrek, "Memoria Historikoaren Lege" gisa ezagunago denak, gerra zibilean eta diktadura garaian jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak aitortzen eta hedatzen ditu eta haien aldeko neurriak ezartzen ditu.

1978ko Espainiako Konstituzioak aukera eman du indarkeriaren eta botere-abusuen biktimei aitorpena eta laguntza ematen dien araudi esparru bat sortu eta garatzeko. Gaur egun mugatua da araudi hori, eta garatzen ari da. Nafarroako erakundeek, beren eskumen gaitasuna erabiliz, bide horri jarraitu diote eta martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea –eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa– onetsi dute berriki (apirilaren 16ko BOEn argitaratu zen)[10]. Urte batzuk lehenago eman zen argitara 9/2010 Foru Legea, apirilaren 28koa, Terrorismoaren biktimei laguntzekoa. Lege horrek Nafarroan terrorismoaren biktimekiko tratamendua arautzen du eta mekanismo ekonomiko eta sozial batzuk ezartzen ditu.

Garrantzitsua izan zen, halaber, azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarraren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa, errepublika eta demokrazia defendatzeagatik Nafarroan eraildako 3.400 pertsona baino gehiago ahazmen ofizialetik atera baitzituen.

16/2019 Foru Legearen 1. artikuluan adierazten denez, helburua zera da, *"eskuin muturreko taldeen edo funtzionario publikoen indarkeriazko jardunak eragindako motibazio politikoko biktimen errekonozimendurako eta, kasua bada, erreparaziorako eskubidea tankeratzea, baliabideak eta mekanismoak arautuz halako biktimatzat aitortuak izan daitezen eta, kasua bada, errekonozimendurako eta erreparazio integralerako kasuko eskubideen onuraduntzat".*

Foru Lege horren xedea arrazoi politikoek eragindako indarkeriaren biktimei aitorpena eta erreparazioa ematea da, betiere nazioarteko, estatuko, autonomiako eta foru mailako araudia errespetatuz. Horretarako, administrazio prozedura bat ezarri da, administrazio neurriak hartzeko aukera ematen duena,

---

[10] 2019ko 62. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 1ean. Apirilaren 16ko Estatuko Aldizkari Ofizialean.
16/2019 Foru Lege horrek zuzendu eta ordeztu egiten du Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legea, zeina indargabetuta geratuko baita 16/2019 Foru Legeak indarra hartzen duenean.

ukitutako pertsonei babesa emateko.

## 3.4.- 1960tik 1978ra bitarte askatasunaz gabetutako pertsonen testuingurua eta tratamendua

### 3.4.1.- Giza Eskubideei buruzko efemerideen zerrenda eta adibide batzuk

Nafarroan torturei eta tratu txarrei buruz aztertutako kasuak zer testuingurutan dauden ulertzeko, lehenik eta behin, Giza Eskubideei buruzko erreferentzia batzuk biltzen dituen zerrenda sintetiko bat aurkeztuko dugu. Horiek agerian uzten dute arazoak denboran zehar eta 1978ra arte iraun duela:

| | |
|---|---|
| **1948** | |
| Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala | 5. artikulua: “Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta umiliagarririk eman ere”. |
| **1950** | |
| Europako Kontseiluko estatu kideak | Azaroak 4. Giza Eskubideak eta Oinarrizko Askatasunak Babesteko Hitzarmena, 3. artikulua. Tortura debekatzea: “Ezin izanen da inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu anker edo umiliagarririk eman ere”. |
| **1955 - 1957** | |
| Nazio Batuak | “Presoak tratatzeko gutxieneko arauak”. 1955ean Genevan egin zen Delituaren Prebentzioari eta Gaizkilearen Tratamenduari buruzko Nazio Batuen Lehen Biltzarrean erabaki ziren, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak onartu zituen 1957ko uztailaren 31ko 663 C (XXIV) Ebazpenean; geroago 1977ko maiatzaren 13ko 2076 (LXII) Ebazpenean zabaldu egin zituen. |
| **1960** | |
| Nafarroako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako apaizak | Maiatza. 339 apaizek Euskadiko eta Nafarroako gotzainei zuzendutako dokumentu bat sinatu zuten. Dokumentu horretan tortura lekukotzak jasotzen dira. |
| **1966** | |
| NBEren Batzar Nagusia | Abenduak 16. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna. 7. artikulua: “Ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratu txar, anker eta umiliagarririk eman ere”. |
| **1967** | |
| | Polizia etxeetan gertatzen ziren tratu txarrak sermoietan salatu zituzten apaiz batzuez gain, antzeko zerbait adierazi zuten Euskadiko eta Nafarroako 500 apaizek ere |

| | |
|---|---|
| | Espainiako Gotzain Konferentziari igorritako gutunean (1967). |
| **1968** | |
| Abokatu Gazteen Nazioarteko Elkartea | Urriaren 8tik 11ra bitartean egin zen Bartzelonako Kongresuan egoera horiek salatu ziren. |
| Espainiako estatuko 1.500 intelektual | Azaroak 16. Espainiako Barne Arazoetako ministroari bidalitako dokumentua, errepresioari eta torturei buruzkoa. Euskadiko eta Nafarroako zenbait lekukotza ere jasotzen dira bertan. |
| Alderdi Komunista | "1.500 intelektualek errepresioa eta tortura salatzen dituzte". Liburu klandestinoa, 62 orrikoa. Euskadiko eta Nafarroako zenbait lekukotza ere jasotzen dira bertan. |
| Eusko Deya 503 | 1968ko abuztuaren 25a: "Euskal herritarrek Mexikoko iritzi publikoari". Sinatzaileak: EAE, EAJ, PSOE, UGT, ELA eta CNT.<br>"Presoak torturatzen espezializatutako polizien fintasun morbosoak, atxiloketa masiboek, deserriratzeek, isunek eta espetxe zigorrek ezin izan dute hautsi duintasun kontzeptuari osorik eusten dion herri baten espiritua. Orain, faxismoa bere amorrua areagotzen ari da, polizia baten heriotza aitzakiatzat hartuta; polizia hori, zoritxarrez, ezagun bihurtu zen azken 20 urteetan presoen torturatzaile gisa zuen famarengatik. Hainbeste bidegabekeria ikusita, Eusko Jaurlaritzak Mexikon daukan ordezkaritzak eta bertan gauden alderdiok eta sindikatuok gure protesta biziena adierazi nahi dugu gure herria jasaten ari den tirania basatiaren aurka". |
| **1969** | |
| 1.200 intelektual | Martxoak 28. Intelektualek egindako beste dokumentu bat, Justiziako ministroari zuzendutakoa. |
| Juristen topaketa, Espainiako estatuko egoera dela-eta | Maiatzak 24 eta 25. Erroma. Alemaniako Errepublika Federala, Austria, Belgika, Britainia Handia, Espainia, Frantzia, Holanda, Italia, Luxenburgo eta Suitzako juristak eta nazioarteko zenbait elkartetako kideak (besteak beste, Jurista Demokratikoen Nazioarteko Elkartekoak eta Juristen Nazioarteko Batzordekoak). |
| Lanaren Mundu Konfederazioa | Uztaila. Brusela. Espainiako estatuan egindako torturen aurkako protesta agiria. |
| **1970** | |

| | |
|---|---|
| Lekukotzak | "Batasuna la répression au pays basque". Cahiers libres 177-178. Libraire François Maspero. Paris. 60. or. eta hurrengoak. |
| Salaketa | Presoen senideek Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala betetzen ez dela salatu zuten Leonen egindako Abokatuen Kongresuan. |
| **1971** | |
| *Le Monde* | Apirilak 14. *Le Monde* egunkariak 180 apaizek elkarrekin sinatutako homilia bat argitaratu zuen; bertan, atxilotutako langileei egindako torturak salatzen zituzten (gehienak Langile Komisioak sindikatuko kideak ziren). |
| José María Larrauri Iruñeko artzapezpikuaren gotzain laguntzaileak apirilaren 8an, Ostegun Santu eguneko mezatan, Iruñeko Katedralean, emandako homilia. | "Ni ez naiz politikako gizona, elizgizona naiz, eta Elizaren izenean, atxilotuei egindako torturak salatu beste erremediorik ez dut. Neronek ikusi ditut tortura horiek eta horien ondorioak, neure begiekin; tortura fisikoak eta psikikoak, galdeketa krudelak, egiten diren moduarengatik eta denborarengatik, azaltzeko zailak diren atxiloketak, edo behar bezala justifikatzen ez direnak. Baina Espainian ez da egon behar gauza horiek ezartzen edo onartzen dituen legerik. Elizgizona naizen aldetik, esan behar dut gauza horiek egiten dituztenei edo agintzen dituztenei edo onartzen dituztenei edo egitearen alde daudenei ezin zaiela kristau deitu. Berek baztertzen dute beren burua Kristoren anai-arreben gorputz bizia den elizatik". |
| Iruñeko apaizentzako teologia ikastaroko parte hartzaileen homilia. | "Gure lurraldean, gure hirian, Iruñeko polizia etxean, kristau maitasunaren legea urratu da, zenbait pertsona torturatu dituztelako". |
| **1972** | |
| Amnistia Internazionala | Tortura desagerrarazteko AIren lehen mundu-kanpaina. |
| Amnistia Internazionala | "Espainiako kartzelen egungo egoera" txostena; kartzela batzuetan pertsonen osotasun fisikoaren aurka egindako tratu txar eta torturen kasuak jasotzen dira bertan (Puerto de Santa María, Soria). |
| **1973** | |
| NBEren Batzar Nagusia | 3.059 Ebazpena: tortura salatzen duen lehen ebazpena izan zen. |
| **1975** | |

| | |
|---|---|
| NBE | Pertsona guztiak torturaren eta bestelako tratu edo zigor anker, gizagabe edo iraingarrien aurka babesteari buruzko adierazpena. 3. artikulua. "Ezein estatuk ez du onartuko edo baimenduko..." |
| Amnistia Internazionala | Uztaila. "Misioa Espainia" txostena. |
| "Euskal Herriko albisteak salbuespen egoeran"<br>Abokatuen manifestua | Informazio buletin klandestinoak. Maiatzaren 28koak Erkiziaren kasuaren berri eman zuen. Ekainaren 21ekoan, abokatuen kolektibo handi batek torturak egiten zirela salatu zuen. |
| Euskadiko artisten, intelektualen eta langileen manifestua | Ekainak 15. 5. puntua. Torturak. Ekainaren 21eko informazio buletin klandestinoan jasotako testua. |
| **1976** | |
| Jacinto Argaya eta José María Setién | Maiatzak 29. Euskal gotzainen pastorala: "Torturak eta indarkeriazko prozedurek ez dute justifikaziorik ez etikaren ez kristautasunaren ikuspuntutik". |
| Justiziaren eta Bakearen Aldeko Batzorde Nazionala | "Torturari ez". 60 orriko dokumentua. Lekukotzak. |
| Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko Gobernu Batzordea | 37 pertsonari egindako tratu txarrei buruzko dokumentua. |
| Cambio16 | Maiatzaren 31tik ekainaren 6ra arteko astea. Euskal Herriko ordezkaritzak egindako txostena argitaratu zuen. |
| Amnistia Internazionala | Espainiako torturei buruzko txostena. |
| **1977** | |
| Espainiako estatua | Apirilak 13. Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna berretsi zuen. 1977/04/30eko BOEn argitaratua. |
| *Cuadernos para el Diálogo* aldizkaria | "Tortura Espainian". Irailaren 17tik 23ra bitarteko astea. |
| Eva Forest | Lehenengoz argitaratu zuen emakumeei egindako 20 tortura kasuri buruzko dokumentua, *20 casos de tortura a mujeres (Yeserías 75-77)*, Mugalde argitaletxearekin; geroago, 1979an, lan sakonagoa argitaratu zuen Hordago argitaletxearekin. |
| Torturaren Prebentziorako Elkartea (TPE) sortu zen | Jean-Jacques Gautier-ek sortu zuen 1977an, eta hasieran *Torturaren aurkako Suitzar Batzordea* izena izan zuen; Genevan zuen egoitza batzorde hark. |
| **1978** | |
| Espainiako Konstituzioa | 15. artikulua: "Guztiek bizitza eta osotasun fisiko nahiz moralerako eskubidea dute, eta ezin da inoiz torturarik egin, ez eta zigor edo tratu jasanezin edo umiliagarririk ere". |

| | |
|---|---|
| Espainiako Zigor Kodea | Ekainaren 17ko 31/78 Legearen bidez, tortura delitua jasotzen duen 204-bis artikulua sartu zen. |

Goian azaldutakotik, urte hauei buruzko adibide zehatz batzuk nabarmenduko ditugu:

José Vicente Iriarte Aresok honako hauek jasotzen du *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977). Organización y conflictividad* liburuan (Nafarroako gobernua: Iruña. Historia Bilduma, 79. zk. 1995):

> 1967: Maiatzaren lehena: "*Deialdia ASTk egin zuen eskuorrien bitartez eta hitzez. 400 pertsona inguru bertaratu ziren, ia guztiak mugimendu apostolikoetako kideak. Sarasate pasealekutik Sindikatuen Ordezkaritzara joan ziren, eta hor Lege Sindikalaren aurka protesta egiteko idazki bat irakurri zuten. Ekitaldia poliziak desegin zuen eta hiru pertsona atxilotu zituzten: Jesús Ruiz, Jesús Rodríguez eta* ***Francisco Vitas****, azken hori Potasas de Navarra enpresako langilea, geroago polizia etxean jipoitu zutena*"[11]. (67. or.).

> 1971: *"…[1971ko] apirilean, langile nabarmenen aurkako polizia ekintza baten ondorioz, 24 langile polizia etxera eraman zituzten. Hala eta guztiz ere, errepresioak ez zuen espero zitekeen munta izan, tentsio soziolaborala kontuan hartuta. Zenbait arrazoi indartsuk eragin zuten errepresioaren arintze hori: Imenasako langileak lanuzte mugagabean zeuden bertako bi ordezkari atxilotu zituztelako, Udalak Ostiral Santu egunean prozesioan ateratzeari uko egin zion euforia errepresibo betean, Larrauri artzapezpikuak Ostegun Santuko hitzaldi publikoan atxiloketak eta torturak salatu zituen, eta, azkenik, errepresioaren kontrako mobilizazio handiak gertatzeko aukera zegoen[12]. Apirilaren 14an, 180 apaizek homilia bateratu bat irakurri zuten (Le Monde egunkariak argitaratu zuen) atxilotuei egindako torturak salatzeko. Gobernu Zibilak Lanbide Batzordeen desegitea aipatu zuen prentsa ohar batean".* (121. or.).

[11] ORT, *25 años de historia del movimiento obrero navarro*. Ed. C.P.N., Iruña, 1975, 19. or.
[12] EQUIZA, Jesús. *Política y profecía. El profetismo de la Iglesia navarra en los años setenta*, F.P.D.I.N., Iruña, 1983, 35-41 or.

1976: "*Apirilaren 30ean atera zen* ***Amparo Arangoa*** [13] *Gizarte Segurantzako ospitaletik. Egun batzuk lehenago ospitaleratu zuten, Guardia Zibilak Leitzan (Nafarroa) atxilotu ondoren. Sarrió paper fabrikako langilea zen, baita Paperaren eta Arte Grafikoen UTT sindikatuaren presidenteordea eta Langileen Kontseiluko kide ere*[14]". (285. or.)

1970ean, presoen senideek idazki bat aurkeztu zuten Leonen egin zen Abokatuen Kongresuan, eta bertan hau adierazi zuten[15]:

- *Amnistia osoa eta baldintzarik gabea preso eta erbesteratu guztientzat, inolako diskriminaziorik gabe, eta haien ondorengo segurtasunerako bermeak.*
- *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta Aita Santuaren entzikliketako printzipioak erreserbarik gabe aplikatzea.*
- *Bidelapurreriaren eta Terrorismoaren Legea indargabetzea eta Auzitegi bereziak, militarrak eta Ordena Publikokoak etetea.*
- *Heriotza zigorra indargabetzea.*

Izan ere, 1960. urtetik 1978. urtera bitarteko aldian oinarrituta, garai hartan Nafarroan izandako polizia abusuak salatzen zituen dokumentazio zehatza ere aurkitu dugu. Horrela, Nafarroako elizak egindako bi dokumentu ekarriko ditugu

---

13 Amparo Arangoa Leitzan atxilotu zuten eta Tolosan torturatu zuten, eta haren kasua garai hartako hedatuena eta ezagunena izan zen, egin zizkioten argazkiek eskainitako ebidentziaren ondorioz. Mariano Ferrer-ek (*Lo que dije y digo. Artículos de prensa 1991-2010*, Ttarttalo, 2011, 36. or.) kasu horri buruz eta kasuak izan zuen garrantziari buruz idatzi zuen eta honako hau adierazi zuen:

*Agur, Amparo*
*Ez dut haren aurpegia gogoratzen, haren ipurmasailak bakarrik, Tejeroren eta Muñecasen agindupean, Tolosako Guardia Zibilaren kuartelean modu basatian jipoitu zutenek utzi zizkioten bezala. Haren aurpegia ezabatu egin zait urteekin eta, zoritxarrez, izena bera ere ia ahaztua nuen hil zela irakurri dudanean.*
*Amparo Arangoa Satrustegui izena mundu osoan egin zen ezagun Argiako argazkiekin batera. Aldizkari horrek, garai hartan bere mantxeta babesten zuen zeru hartaz fidatuta beharbada, zentsuraren legeei eta zituen bitarteko urriei aurre egin zien Leitzako sindikalistaren izter eta ipurmasail hantuak erakusteko barnealdeko zabalgarri bat koloretan argitaratzean. Urgentziaz ospitaleratu behar izan zuten emakumea Iruñeko Virgen del Camino ospitalean atxilotu eta bederatzi ordura.*
*76ko udaberria zen, muga bat torturaren aurkako borrokan. Guztiok genekien zer gertatzen zen ziegetan, baina argazki horiek ikusi ondoren inork ezin zuen ukatu. Agerian zegoen delituaren gorputza. Tortura ez zen horregatik desagertu, baina Amparok bere gorputz jipoitua adoretsuki erakutsiz lortu zuen gizarteak, desatsegina dena onartzeari beti uzkur egiten dionak, onartzea tortura salatzea giza duintasunaren defentsa zela. Amparo gure oinarria izan zen agerikoa zena erakusteko ahalegin babesgabe haietan.*
*Harrezkero ez nuen haren berririk izan inoiz. Erraztasun handiegia dugu biktimak ahazteko, nahiz eta haietaz baliatu. Haren heriotzak gertatutakoa gogorarazi dit, eta gorputzak eskatzen dit gaur egungo biktimei buruzko gogoeta egitea. Horiek ere agerikoak. Horiek ere erabiliak.*
*Baina ez dut jarraituko. Ez dakit zer pentsatzen zuen Amparok eta ez dut haren oroimena erabili nahi. Erabili genituen haren argazkiak. Nahiago dut lerro hauek eskerrak emateko mezua izatea, ez besterik.* (1991-12-21. Mario Ferrer).

14 *Cuadernos para el Diálogo*, 1976ko maiatzaren 14a, 49. or.; *Cambio 16*, 1976ko maiatzaren 10-16, 27. or.; *Por favor*, 1976ko maiatzaren 17a.

15 RINCON, L. 1985. ETA (1974-1984). Plaza y Janes. 221. or.

gogora. Dokumentu horiek Jesús Equizak[16] argitaratu zituen, eta seguruenik osatuenak eta espezifikoenak dira garai horretan Nafarroan izandako torturen errealitatea ulertzeko.

Apaiz horrek, “Torturari buruzko bi homilia” titulupean, honako hau adierazi zuen:

> *1971ko martxoan, hiru langilek Frantziara ihes egin behar izan zuten, egin behar zieten epaiketan fiskalak urte askotako kartzela zigorra eskatzen baitzuen. Hauek ziren iheslariak edo erbesteratuak:*
>
> *Luis Donázar, 52 urte, ezkondua, 5 seme-alaba, atxilotua eta tratu txarrak jasandakoa, HOACko militantea. Fiskalaren eskaera: 14 urteko espetxealdia.*
>
> *José Mª S. Martín, 52 urte, ezkondua, 6 seme-alaba, atxilotua eta kartzelan. HOACko militantea. Fiskalaren eskaera: 14 urteko espetxealdia.*
>
> *Francisco Casas, 50 urte, ezkondua, 6 seme-alaba, zenbait egun kartzelan. Fiskalaren eskaera: 12 urteko espetxealdia.*
>
> *Apirilaren hasieran, langile militante batzuk atxilotu zituzten. Guztiak igaro ziren polizia etxetik[17], ia guztiak kartzelatik. Langile horietako bati eta apaizgai bati tratu txarrak eman zizkieten.*
>
> *...*
>
> *José Mª Larrauri gotzain laguntzaileak torturatu batzuk bisitatu zituen, eta ondo informatuta, torturak profetikoki salatu zituen Ostegun Santu arratsaldeko liturgia nagusian emandako homilian… Iruñeko katedraleko meza horretara agintariak joan ziren. Agintari horien buru gobernadore zibila zen, salatutako egitateen erantzulea, neurri handi batean.*
>
> *“Apaizentzako teologia ikastaroko” apaiz taldeak ere, errealitatea aztertu ondoren, erabaki zuen torturak bekatu gisa salatzea Ostegun Santu eguneko homilia komun batean. Bi homilia horiek bakoitza bere aldetik programatu ziren.*

Senidetasunean oinarritutako izaera katolikoaren oinarrizko printzipioei buruzko gogoeta handi bat egin ondoren, gotzainak[18] hau adierazi zuen:

---

[16] EQUIZA, J. 1983. ¿Política o Profecía? El profetismo de la Iglesia Navarra en los años 70. Fundación para el Desarrollo Informativo Navarro. 263. or.

[17] 1971n, Nafarroako 200 apaizek eta Iruñeko gotzain laguntzaileak torturak, atxiloketa bidegabeak eta langileen kaleratzeak salatu zituzten pulpitutik. Honela zehaztu zituzten beren salaketa eta protesta: “*Atxiloketen eta erregistroen aurka; atxilotuei emandako torturen eta tratu txarren aurka; galdeketa luze, neketsu eta krudelen aurka; langileen kaleratzeen eta zehapenen aurka; eta askoren ihesak eragin duen beldurraren eta ikararen psikosiaren aurka*” (Tierra Vasca - Eusko Lurra, 1971ko maiatza, 179. zk.). Testu berean atxilotuen zerrenda ageri da eta haien artetik torturak jasan zituztenena: Antonio Andrés, Jesús Mendibil, Luis Monasterio, Benito Goñi, Irigoyen, Julian Goñi (apaizgaia) eta Antonio San Vicente (apaizgaia).

[18] Larrauri gotzain laguntzaileak laguntza gutun bat igorri zien San Martíni eta Donázarri 1971ko apirilaren 25ean.

"*Ni ez naiz politikako gizona, elizgizona naiz, eta Elizaren izenean, atxilotuei egindako torturak salatu beste erremediorik ez dut. Neronek ikusi ditut tortura horiek eta horien ondorioak, neure begiekin; tortura fisikoak eta psikikoak, galdeketa krudelak, egiten diren moduarengatik eta denborarengatik, azaltzeko zailak diren atxiloketak, edo behar bezala justifikatzen ez direnak*".

Eta honela jarraitu zuen:

"*Baina Espainian ez da egon behar gauza horiek ezartzen edo onartzen dituen legerik. Elizgizona naizen aldetik, berriro diot, esan behar dut gauza horiek egiten dituztenei edo agintzen dituztenei edo onartzen dituztenei edo egitearen alde daudenei ezin zaiela kristau deitu. Berek baztertzen dute beren burua Kristoren anai-arreben gorputz bizia den elizatik*".

Ikusten dugunez, José Mª Larrauri gotzainaren uste sendoek[19] erakusten dute ez dagoela zalantzarik Nafarroako elizatik oso hurbil zeuden pertsonek jasandako torturen inguruan.

Bestalde, "Apaizentzako teologia ikastaroko" apaizen homilia handiak ere, Vatikanoko II. kontzilioa gogoratuz, ez du gaia zalantzan jartzen:

"*Gure lurraldean, gure hirian, Iruñeko polizia etxean, kristau maitasunaren legea urratu da, zenbait pertsona torturatu dituztelako. Argi eta garbi identifika ditzakegu. Bi langile eta apaizgai bat dira... Hainbat tortura proba egin zaizkie deklara zezaten... Ez dago zalantzarik, baina beharbada zaila izanen da egitate horiek juridikoki frogatzea. Baina, egitate bat juridikoki egiaztatzeko aukerarik ez izateagatik, egitate horrek ez dio lotsagarri izateari uzten. Gainera, galdeketa horietan ez diote uzten lekuko izan daitekeen inori bertaratzen… Beraz, ez dago frogarik, horixe bera delako asmoa: frogarik ez egotea*".

"*Norbait da ekintza anker horien egilea (poliziako kideak), norbait da erantzule morala (agintzen duen edo baimentzen duen Gobernu Agintaritza), norbait da erantzule juridikoa (legea eta lege hori onartu zuen parlamentua). Instantzia horiek guztiek eta instantzia horietan inplikatuta dauden pertsona guztiek (dagokien mailan) larriki urratu dute maitasunaren legea, larriki iraindu dituztelako pertsona batzuk, eta beti errespetatu behar da pertsonen duintasuna. Kontzilioak dioen bezala, tortura egitateek "desohore handiagoa dakarkiete egileei biktimei baino", eta ez dago egitate horiek legitima ditzakeen agintaritzarik eta botererik.*

[19] José María Larrauri 1970ean gotzaindu zuten eta Iruñeko artzapezpikuaren laguntzaile izendatu zuten. Garai hartan, Arturo Tabera Araoz kardinala zen artzapezpikua eta Larraurik, 1950az geroztik, erantzukizuneko hainbat kargu bete zituen harekin batera, Tabera Albaceteko gotzain izan zenean. José María Larrauri 1974ra arte egon zen Iruñeko elizbarrutian (José Méndez Asensio artzapezpikuarekin); urte hartan, Espainiako Gotzain konferentziak proposatuta, Obras Misionales Pontificias erakundearen gotzain zuzendari izendatu zuten. Gasteizko gotzain izendatu zuten 1979an eta Arabako elizbarrutiaren buru izan zen 1995an 77 urte bete arte; orduan, Iruñeko Miguel José Asurmendi Aramendía salestarrak hartu zuen haren kargua.

Aurreko guztia 1971n eta hurrengo urteetan gertatu zen, eta Nafarroako elizak berak ere pairatu zituen ondorioak, apaiz ugari atxilotu baitzituzten. Atxiloketa horiek bidegabetzat eta arrazoirik gabetzat hartu zituzten elizako agintariek eta horietako batzuei isuna jarri zien gobernadore zibilak[20].

### 3.4.2.- 1960tik 1978ra bitarte Iruñean izandako atxiloketa garrantzitsuak

**1962ko irailaren 6a**. Aieten lehergailu bat jarri izana aitzakiatzat hartuta, poliziak jende asko atxilotu zuen Gipuzkoan, bereziki Tolosan eta Eibarren; eta Iruñean Euskalerriaren Adiskideen elkarteko hiru kide atxilotu zituzten: J. Clavería (presidentea), Santiago Mugerza eta Azua. Hirurak Donostiako polizia etxera eraman zituzten galdeketa egiteko. Hilabetearen bukaeran utzi zituzten aske.

**1964ko maiatzaren 25a**. Poliziak José Mari Rodríguez eta haren andregaia –María Ángeles Alzugarai– atxilotu zituen Iruñean.

**1964ko urtarrilaren 16a**. Jokin Garate ETAko militantea larriki zauritu zuen poliziak Iruñeko Eroritakoen monumentuaren inguruan. Julián Larunbek, aldiz, ihes egitea lortu zuen. Operazio horren ondoren, poliziak atxiloketa ugari egin zituen Nafarroan.

**1966ko apirilaren 30a**. Ikasleen manifestazioa Iruñean. José Manuel Cruz –Filosofia eta Letretako ikaslea– eta José I. Vicente Mazariegos –Zuzenbideko ikaslea– atxilotu zituzten.

**1966ko maiatzaren 1a**. Ikasleen manifestazioa Iruñean atxilotuak aske utz ditzatela eskatzeko. Atxiloketa gehiago izan ziren.

**1967ko martxoaren 24a**. Tentsioa Iruñean, Aberri Egunaren deialdiaren aurrean. Atxiloketak hasi ziren. Mutiko Alaiak peñaren presidenteari elkarteko lokalak ixteko agindu zioten. Ezetz esan zuenez, poliziak jipoitu egin zuen eta presidenteordea atxilotu zuen.

**1967ko martxoaren 26a**. Aberri Egun bateratua Iruñean. Poliziaren errepresioa izan zen egunaren ezaugarria. Pertsona asko artatu zituzten ospitale zentroetan eta hirurehun eta berrogeita zazpi pertsona atxilotu zituzten –bi egun lehenagotik hasita–. Atzerriko prentsak eta irratiek, ETAk eta erbesteko Eusko Jaurlaritzak esan zuten, hala eta guztiz ere, hogei eta hogeita hamar mila pertsona inguru elkartu zirela Nafarroako hiriburuan.

---

[20] 1973ko otsailetik martxora: 23 atxilotu. 1973ko azaroaren 19an, 140 apaiz elkartu ziren egitate horiei buruzko gogoeta sakona egiteko, eta honako hau adierazi zuten: "*Erdi kontzientziatuta dagoen eta gure herrialdean giza eskubideak ezartzeari begira zerbait egin nahi duen edonork legezkontrakotasunarekin egiten du topo eta ia ezinbestez klandestinitatera jo behar du, eta horrek ezinegonean eta errepresioaren etengabeko beldurrean bizitzea dakar*". Alonso, Mendivil eta Goñi, atxilotu eta torturatu zituztenak, Larrauri monsinoreak bisitatu zituen. 1973ko maiatzetik 1974ko ekainera, 41 apaiz atxilotu zituzten. 1974ko ekainetik 1975eko urtarrilera, 40. 1975eko apirilaren 25ean, Gipuzkoan eta Bizkaian salbuespen egoera deklaratzearen ondorioz eta izan ziren tortura kasu ugarien ondorioz, Nafarroako apaiz askok salaketa kolektibo bat egin zuten. 1975eko apiriletik azarora, 19 apaiz atxilotu zituzten Nafarroan. 1975eko urrian, "Komunikazio Pastoralak" (Madril) adierazi zuen "*galdeketa askotan tortura erabiltzen zela*", eta inork ez zuela prozedura horien kontrako ezer adierazi publikoki.

**1968ko maiatzaren 1a**. Hamarnaka atxilotu.

**1968ko ekainaren 19a**. Manifestazio bat egin zen Iruñeko artzapezpiku jauregiaren aurrean, elizako agintarien jarreraren aurka protestatzeko, agintariek Txabi Etxebarrietaren omenezko meza bat ematea galarazi baitzuten. Poliziak esku hartu zuen eta atxiloketak egin zituen.

**1968ko uztailaren 26a**. Guardia Zibilak Iruñeko José A. Idoate Lanz, Faustino Ruiz Benjumea eta Elías Antón Murgiondo atxilotu zituen. Mendian ikurrin bat jartzera zihoazenean atxilotu zituzten.

**1969ko urtarrilaren 5a**. Arantxa Arruti presoa Iruñeko espetxetik askatzeko saiakerak porrot egin zuen. Haren senarra, Goio López Irasuegi, eta Xabier Izko de la Iglesia espetxe barruan atxilotu zituzten, eta bigarrena birika batean zauritu zuten balaz.

**1970eko martxoaren 4a**. Ikasleen manifestazioa Iruñean, Hezkuntza Lege berriaren aurka. Poliziak jende ugari atxilotu zuen, besteak beste Javier Escalada Navaridas, zeina hamar egun geroago hil zen Laguardia-Biasteriko Leza ospitalean. Bihotzeko gaixotasun batengatik ebakuntza kirurgikoa egiteko ospitaleratu zuten bertan[21].

**1971ko abenduaren 7a**. Lan gatazka Iruñeko Imenasan. Enpresa horretan 950 langilek egiten zuten lan. Hilaren 21ean, enpresak ugazaben itxiera erabaki zuen, eta gatazka urriaren erdialdera arte ez zen konpontzeko bidean jarri. Nafarroako hiriburuan langile horiei elkartasuna adierazteko mugimendua hasi zen. Ia egunero egin ziren babesa emateko manifestazioak, eta horietan funtsezkoa izan zen beste enpresa batzuetako langileek parte hartzea. Poliziak beti erreprimitu zituen manifestazio horiek, eta atxiloketa ugari egin zituen.

**1972ko martxoaren 8a**. Lehergailua Iruñean, Ahumadako dukearen –Guardia Zibilaren sortzailea– monumentuaren aurka. Zenbait pertsona atxilotu eta galdekatu zituzten.

**1972ko maiatzaren 1a**. 14 atxilotu.

**1973ko ekainaren 14a**. Lanuzteak Nafarroan, Motor Ibéricako langileei elkartasuna adierazteko. Langile horiek maiatzaren hasieratik zeuden greban eta Iruñeko Arrotxapeko El Salvador parrokian itxita. Gainera, manifestazioak eta elkarretaratzeak egin ziren hainbat lekutan, eta guztiak desegin zituen poliziak. Lanuzte horien ondorioz, greba orokor mugagabea egin zuten, eta horrek hiriko bizitza erabat geldiarazi zuen hainbat egunez, bereziki Iruñean. Hilaren 19tik aurrera, pixkanaka normaltasuna ezarri zen saltokietan eta garraio publikoetan, baina enpresa handietan ez, gutxienez hilaren 25a arte langabezian jarraitu

[21] Atxiloketan jasandako tratu txarraren ondorioz hil zela hainbat hedabidetan adierazi bazen ere, gaur egun Iñaki Zaratieguik, lagun pertsonala zenak, adierazi digu Javier Escaladak "Disidentziaren aurkako errepresio frankista jasan zuen, etengabeko polizia-jazarpenarekin, bihotzeko gaitzaren bilakaera negatiboan eragin ahal izan zuena, baina ez zuen tortura kalkulatu bat jasan, eta are gutxiago tratu txarren ondoriozko heriotza bat".

baitzuten. Bien bitartean, protestak eta elkartasuna adierazteko ekintzak egin zituzten, hala nola Iruñeko parrokia guztietan egindako homiliak; eta, beste alde batetik, langileen atxiloketak. Hilabete osoan, tentsio handiko giroa bizi izan zen.

**1973ko uztailaren 2a**. Poliziak Joan Manuel Serrat atxilotu zuen Iruñean, errezital bat amaitzean, abeslari katalanak hirian zegoen lan egoera aipatu zuelako. Bi ordu geroago askatu zuten, baina berrogeita hamar mila pezetako isuna jarri zioten.

**1974ko apirilaren 2a**. Koldo Iztueta Irisarri –jatorriz Donostiakoa eta Ordizian bizi zena– atxilotu zuen poliziak Iruñean, berrogeita hamar agentek baino gehiagok inguratu ondoren. Militantea oso larri zauritu zen ihes egin nahian teilatu batetik erori zenean eta hankan bala baten inpaktua jaso ondoren. Hurrengo egunetan, 4 pertsona atxilotu zituzten Iruñean, Iztuetarekin lotuta.

**1974ko abenduaren 2a**. Poliziak Iruñean Authitik kaleratutako langile bat atxilotu zuen, Javier Larrañeta.

**1975eko azaroaren 10a**. Etxarriko María Asun Igoa eta María Teresa Mendikute atxilotu zituzten Iruñean.

**1976ko apirilaren 18a**. Hogei atxilotutik gora Iruñean Aberri Egunean.

**1976ko abenduaren 19a**. Iruñean, amnistiaren aldeko zenbait mahaitan zeuden bost pertsona atxilotu zituen poliziak.

**1977ko maiatzaren 7a**. Amnistiaren aldeko auto ilara batean parte hartzen ari ziren hamaika pertsona atxilotu zituzten.

**1977ko urriaren 10a**. Iruñean, hogei pertsona atxilotu zituzten batzar batean.

**1977ko urriaren 11**. José Luis Larraza Lakuntza atxilotu zuten.

**1978ko maiatzaren 12a**. 42 pertsona atxilotu zituzten polizia etxean, hilaren 10ean kontrolgabe batzuek eragindako gertakarien ondoren.

**1978ko ekainaren 5a**. Konbentzio Errepublikanoko lau militante atxilotu zituzten kalean alderdiko prentsa saltzen ari zirenean.

**1978ko azaroaren 13a**. Mikel Landa, Javier Ganuza eta Bernardo Clemente atxilotu zituzten.

### 3.4.3.- Torturen eta tratu txarren salaketak

Ikusi dugunez, tortura benetako arazoa izan zen urteetan Nafarroan[22], eta 1960an dagoeneko modu zehatzean planteatu zen 339[23] apaizek egindako idazkia eta salaketa kontuan hartzen badugu. Apaiz horiek honako hau adierazi zuten, besteak beste:

> "… *gure herrialdeko polizia etxeetan tormentua erabiltzen da Legearen urratzaileen ikerketa eta bilaketa metodo gisa. Lege hori, gainera, askotan garrantzirik gabea da eta, ez gutxitan, bidegabea. Asmo txarreko susmo bat nahikoa da polizia edo guardia zibil batek edozein herritar (egozten zaion okerraren errugabea askotan) nahi bezala zigortzeko, torturatzeko eta zauritzeko. Ez gara egitate isolatuez ari. Sistematikoki egiten den zerbait da, agintariek ezagutzen baitituzte egitateak, eta onartzen dituzte. Horri buruzko dokumentuak eta proba zehatzak ditugu*" (1960ko maiatzaren 28a. 339 apaizen dokumentua) (59. orria)[24]:

José Luis Díez Monrealek argitaratutako liburuan (*La historia olvidada. EGI en Nafarroa durante la década de los años sesenta*, 2000) polizia abusuen, tratu txarren eta torturen berri ematen da; horrez gain, Nafarroan 1964. urtetik 1968. urtera bitarte izandako kasu zehatzak aipatzen dira:

.- 1964. **Jokin Garate**, Algortakoa, poliziak balaz zauritu eta Iruñeko Ospitale Probintzialean ospitaleratu zuten. Baina aurretik "*polizia etxera eraman zuten eta han modu basatian jipoitu zuten*" (…) "*konortea galdu arte*" (50. eta 104. orrialdeak).

.- 1966. **Elías Antón Murguiondo**, **J. María Arzallus**, **Javier Garín**, **José Manuel Peñagaricano** eta **Javier Belza** Beraun gainean (Pasaia) atxilotu zituzten Francoren Guardiako kideek. Melitón Manzanasek torturatu zituen. Ordena Publikoko Auzitegiak epaitu zituen 271/66 auzian (93. orrialdea).

.- 1967. **Miguel Angel Erdozain**, "Pirulo", EGIko kide ezaguna, Brigada Politiko Sozialak atxilotu zuen eta "*kolpe ugari eman zizkioten atxilotuta egon zen bitartean*". OPAk epaitu zuen 1967-12-14an (81. eta 82. orrialdeak).

.- Nafarroan Prietok jotzen zituen 1967ko Aberri Egunean atxilotutakoak, burukadak emanez (104. orrialdea).

---

[22] Geroago, 1981eko abuztuaren 8an, Nafarroako Parlamentuko lehendakari Víctor Manuel Arbeloa jaunak Baztango zortzi herritarrek pairatutako torturen salaketak ikertzeko eskatu zion Espainiako Gobernuari. Ondorengo urteetan salaketa gehiago egin ziren.

[23] 339 euskal apaizen gutun ezagunean (1960) salatu ziren gertakari horiek, baita apaiz batzuek ere beren homilietan eta, geroago, antzeko hitzetan, 500 euskal apaizek Espainiako Gotzain konferentziari idatzitako gutunean (1967). Gainera, Bilboko Apaizgaitegian itxita zeuden 60 apaizek honako hau jakinarazi zioten Paulo VI.a Aita Santuari bidalitako gutun batean (1968); "*gure anaia asko modu basatian torturatzen dituzte Espainiako polizia etxeetan*".

[24] DIAZ MONREAL, J.L. 2000. La historia olvidada. EGI en Nafarroa durante la década de los años sesenta. Ahaztuak 1936-1977. Bilbo. Argitalpen horretan kasu zehatzak aipatzen dira.

.- 1968ko uztailaren 24a. **Elías Antón[25], José Antonio Idoate Lanz** eta **Fausto Ruiz Benjumea**. Urbasan atxilotu zituzten EGIren ikurrina jartzen ari zirenean, eta Olaztiko kuartelera eraman zituzten; han torturak pairatu zituzten, "*Idoatek jaso zuen lehen ukabilkada eta horren ondorioz, lurrera erori zen*". Gero, Iruñeko Galizia etorbideko Guardia Zibilaren kuartelera eraman zituzten, eta han "*Etenik gabe, galdeketak*[26] *eta torturak berriro hasi ziren".* "*Bereziki Elías Antónekin grinatu ziren; kolpeak, irainak eta mehatxuak etengabeak ziren*" (129. orrialdea). **Juan Mari Feliuk** kuartelean ikusi zuen **Elías Antón** "*eskuak eta oinak lotuta zituela eta aurpegia ikaragarri mailatuta*" (130. eta 140. orrialdeak) 592/68 OPA.

.- 1969ko azaroaren 17a. **Arantxa Arruti Odriozola** atxilotu zuten; haurdun zegoen eta haurra galdu zuen "*Guardia Zibilak eragindako torturen ondorioz*" (141. orrialdea).

.- Apirilean, [redacted] **Arazuri**, **Armendariz**, **Sádaba** eta **Aparicio** atxilotu zituzten (26/69 auzia) "8an eta 9an galdeketak egiten jarraitu zuten eta bost atxilotuen etxeak miatu zituzten, baita iheslarienak ere. Oso material gutxi konfiskatu zuten [EAJren eskuorri bat eta ikurrina eta Euskal Herriko mapa zuten eranskailuak]. Azanzaren [iheslaria] etxean bederatzi folioko dokumentu bitxi bat aurkitu zuten; bertan, Espainiako estatuan izandako tortura kasu ugari kontatzen ziren zehatz-mehatz. Dokumentu horretan adierazten zenez, kopia bat Gobernazioko ministroari helarazi zioten (166. orrialdea)

.- **Miguel Angel Erdozain** berriro atxilotu zuten 1970eko abuztuaren amaieran. "Polizia etxean, legez kontrako propaganda banatzen zuen sare baten arduradun izatea leporatu zioten. Erdozainek dena ukatu zuen. Tortura krudelak jasan zituen eta konortea galdu zuen behin baino gehiagotan (186. orrialdea).

"*La historia olvidada. EGI en Nafarroa durante la década de los años sesenta"* liburuaz gain, José Luis Díaz Monrealek gutxienez beste bi liburu gehiago ditu. Lehenengo liburua berrogeita hamarreko hamarkadari buruzkoa da, eta, beraz, ez da sartzen lan honetan aztertutako aldiaren barnean, baina, edonola ere, urte batzuk geroago atxiloketan eta inkomunikazioan gertatuko diren giza eskubideen urraketen adierazle gisa hartzen ahal da. 1956an jarri zen abian gerraosteko lehen Salbuespen Egoera, eta jardun horiek bultzatu zituen:

Egile beraren *"La huelga de 1951 y otros conflictos en Navarra durante los años cincuenta"* liburuan (Pamiela: Iruña, 2013), 1954ko eta 1956ko grebak ere kontatzen dira:

- "*Garai hartan askotan egiten ziren atxiloketa bidegabeak kalean bertan edo gaueko ordu txikietan, polizia bizilekuetan sartzen zen agindu*

[25] 1986an, Elías Antón estraditatu egin zuten eta Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusian (DGS) torturatu zuten (186. orrialdea).
[26] Eta 130. orrialdean jarraitzen du: "Atares koronelak zuzentzen zituen galdeketak, geroago laurogeiko hamarkadan ETAk hildako jenerala".

*judizialik gabe eta mehatxu larriak egiten zituzten sartzen uzten ez bazieten*.

*Eraso fisikoak eta psikologikoak ohikoak ziren galdeketetan. Ospe txarreko Brigada Politiko Sozialeko kideek eragiten zuten beldur handiena: atxilotuak ikaratzeko metodoak erabiltzen zituzten, susmagarriak baino ez baziren ere*" (137. or.).

1956ko grebari buruz:

- Egileak hauek aipatzen ditu: Celestino García, *Kino*, José Luis Sabater, Pablo eta Juan Vallejo (guztiak Imenasakoak), José Luis Arbeloa Irisarri, Miguel Ángel Mendivil Fernández, Francisco Martínez Iribarren (López Hermanos fabrikako langileak), J. Lucia (Riviere), Félix Equisoain (Cerrajería Lostau), Marcelino Iriarte Muniain (Lampreave), Rosa Vergara, Víctor Uriz Gorriz, Antonio Elías Ibarrola eta Lucía Munarriz (146. or.).

- Apirilaren 11tik 12ra bitarteko gauean, "*gerra zibilaren amaieraz geroztik, laneko edo politikako istiluren bat gertatzen zen bakoitzean bezala,* ***Constancio Baquedano Churío*** *atxilotu zuten. (…) poliziak atxilotu eta torturatu zuen*" (146. or.).

- "*Atxilotuei galdeketa luzeak egin zizkieten eta mota guztietako isekak eta torturak pairatu zituzten galdeketa horietan*" (147. or.)

- "***Celestino García, Kino****, (…) hiru egunez egon zen, galdeketen arteko atsedenetan, eskailera batzuen azpian, freskagarrien kaxa huts baten gainean eserita*" (147. or.).

- "***José Luis Sabaterrek*** *(…) poliziek eskatzen ziotenari erantzuten ez zionez, atxilotuta jarraitu zuen eta galdeketek eta tratu txarrek jarraitu zuten*".

- *58 egunez egon ziren kartzelan, eta egun horiek igaro ostean polizia etxera eraman zituzten berriro. (…) Urte eta erdiz astero bertaratu behar izan zuten polizia etxean. Egitate hauen gauzarik bitxiena da agintariek ez zietela inolako prozesu judizialik ezarri*" (148. or.).

Testu berean ondorio hauek aipatzen dira, besteak beste (158. or.):

- *1956an, ikusi dugunez, atxilotuak, torturatuak, kaleratuak eta espetxeratuak izan ziren, baina horietako inork ez zuen prozesu judizialik izan*" (159. or.).

Lan gatazkari buruzko lan historiko gehiago daude eta horietan ere aipatzen dira atxilotuek jasandako urraketa polizialak. Esate baterako, *Las huelgas de Potasas*

liburuan, José Luis Díaz Monrealek (Ahaztuak: Bilbao, 2012) gai hori aztertzen du, kontuari buruzko datu gehiago ematen ditu eta bat dator Iriarterekin funtsean:

1967. Maiatzaren lehena:

- "*1936. urteaz geroztik, lehen aldiz egin zen eguna aldarrikatzeko manifestazio bat Nafarroan. Deialdia Acción Sindical de Trabajadores-AST [Langileen Ekintza Sindikala] erakundeak egin zuen. (…) Poliziak hiru lagun atxilotu zituen; besteak beste **Francisco Vitas Oraá** atxilotu zuen, Potasas de Navarra enpresako langilea, eta basatiki torturatu zuten*" (45. or.).

1971. Apirileko sarekada. Potasas enpresako gatazka:

- "*[1971ko] apirilean errepresioa hasi zen CCOOko elementu nabarmenen aurka; hilabete batzuk lehenagotik sumatzen zen hori gertatuko zela. Guztira, 24 pertsona atxilotu zituzten, polizia etxera eraman zituzten eta basatiki torturatu zituzten zenbait egunetan; izan ere, Espainiarren Foruaren 18. artikulua etenda zegoenez, inkomunikatuta edukitzen ahal zituzten denbora mugagabean*" (76. or.).

  "Atxilotuen artean Potasas de Navarra enpresako **Pedro Flamarique** eta **Bernabé Álvarez** langileak zeuden. (…) (76. or.)

  (…) **Fernando Acha** Madrilen gorde zen, (…) baina atxilotu eta galdekatu egin zuten. (…) (77. or.)

- **Antonio Solak** ere ihes egin zuen Madrilera (…), baina abuztuaren amaieran atxilotu zuten eta hiru egunez torturatu zuten polizia etxean. Espetxean sartu zuten 20 egunez, eta, ondoren, behin-behineko askatasuna eman zioten. 1972ko ekainean, Ordena Publikoko Auzitegian epaitu zuten eta sei hilabete eta egun bateko espetxe zigorra jarri zioten Nafarroako CCOOren sortzaileetako bat izateagatik. Iruñeko, Martuteneko eta Palentziako espetxeetan egon zen" (77. or.).

Beste lan gatazka batzuk:

- Irailaren 27an, Langile Komisioek manifestazioa deitu zuten Cuatro Vientosen, Imenasako langileen alde; horren ondorioz, liskar bortitzak izan ziren eta hamabost lagun atxilotu zituzten, eta polizia etxean jipoitu" (62. or.).

1973. Motor Ibéricako greba:

- Potasas enpresako hiru langile atxilotu zituzten Motor Ibéricakoei elkartasuna adierazteko manifestazio batean: **Alberto Izuriaga** (sekulako jipoia jaso zuena), J. González eta hirugarren bat, Burlatakoa. (102. or.).

1974. Lehen itxialdiaren greba:

- “*Uztailaren 29an hiru borrokalari nafar ezagun atxilotu zituzten:* ***Javier García Charela****, Potasas de Navarra enpresako langilea (Lantegi nagusia), CCOOko kidea eta PC(I) Espainiako Nazioarteko Alderdi Komunistako (handik gutxira PTE bilakatu zena) militantea. (…)* ***Ángel Sanz****, Magnesitas enpresakoa, eta CCOOko eta ORTeko militantea hori ere. (…)* ***Patxi Dufur****, CCOOko eta MCEko kidea, Banco de Vasconiako langilea.*

  *Hirurak 72 orduz egon ziren polizia etxeko ziegetan eta gogor torturatu zituzten. Handik espetxera eraman zituzten, PC(I)ren zelula bateko kide izateaz akusatuta. (…)*”. (130. or.).

Bada kontuan hartzeko moduko beste argitalpen bat ere. Horrela, Kolektibo Bateratuak eta LABek idatzitako liburua ere –*Obreros somos… 1969-1989. El Movimiento Obrero en la Comarca de Tafalla* (Altaffailla: Tafalla, 1989)– bat dator aurrekoekin zenbait datu eta datari dagokionez:

1971ko apirila:

- Iturri gisa *Historia del Movimiento Obrero Navarro (1950-1975) de la ORT* liburua harturik, 73. orrialdean, *Obreros somos…* liburuan honako hau aipatzen da:

  “*24 langile atxilotu eta torturatu zituzten hainbat egunez, Espainiarren Foruaren 18. artikulua etenda zegoela baliatuz. (…) Gobernu Zibilak Langile Komisioen desegitea iragarri zuen eta errepresioa eten zuen aldi baterako*”. (29. or.).

1975eko urtarrilaren 12a, Tafallan:

- “*Victorio Luzuriaga fabrikan, enpresa batzordeak, Langile Komisioak bultzatuta, diru-bilketa garrantzitsu bat egin zuen txandaka [grebalari eta kaleratuen alde], eta batzarrak hilaren 13ko greba orokorrari atxikitzea erabaki zuen. Arratsaldean, Guardia Zibilaren informazio zerbitzuko kideak fabrikan sartu ziren bildutako dirua hartzeko asmoz. Zenbait etxetara joan ondoren, hiru langile atxilotu zituzten (Olite, Ecay eta Erdociain); horietako bi Langile Komisioko kide ziren. Azken unean, dirua Caritasen esku utzi zuten, eta guardiek, saiatu ziren arren, ezin izan zuten parrokia etxetik eraman.* (48. or.)

  (…) *Greba mugimendua ia orokorra izan zen probintzian. Tafallan atxilotutakoak Gobernu Zibilera eraman zituzten, eta greban atxilotutako pertsona askorekin beteta zeuden ziegak partekatu behar izan zituzten; horietako asko torturatu egin zituzten*. (…)

*…greba orokorrak hilaren 22ra arte jarraitu zuen. Greba orokorraren ondoren, errepresioak aurrera jarraitu zuen langile nabarmenen kontra: kaleratzeak, atxiloketak, isunak eta abusuak polizia etxean. Tafallan, Guardia Zibileko 'sekretak' ('Barbas' eta 'Gabardina' bereziki) langileak kuartelera deitzen hasi ziren eta han jo egin zituzten beste lankide batzuk salatu zitzaten. Kuartelera joateko deiak egiten jarraitu zuten ondorengo egunetan ere, harik eta batzarrak enpresari [Victorio Luzuriaga] mehatxu egin zion arte, abusuak amaitu ezean berriro grebara aterako zirela esanez. Zuzendaritzak esku hartzea nahikoa izan zen*". (48. eta 49. or.).

1976ko apirila:

- "*Bien bitartean, **Amparo Arangoaren** gorputz torturatuaren argazkiak ikusten ziren kaleetan eta fabriketan,* (…) (57. or.)

1978an, "Preso nafarren koordinakundeak" 20 orrialdeko dokumentu bat argitaratu zuen "Preso nafarrak, gaur" izenburuarekin. Dokumentu horretan, kasu zehatzak salatzen ziren, zenbait atxilotuk, garai hartan, pairatu zituzten tortura prozeduren lekukotzekin eta marrazkiekin[27], eta honako hau adierazten zen: "*Argitaratu ditugun datuen benetakotasuna senideen koordinakundearen egoitzan egiazta daiteke, bertan baitaude presoek sinatutako deklarazioen jatorrizkoak*".

Izan ere, 1978an, datu zehatz hauek salatu zituzten auzitegien aurrean Nafarroan[28]:

| Deiturak eta izena | Atxiloketaren lekua | Atxiloketaren eguna | Atxiloketaren zentroa | Inkomunikazioaren bukaera data | Salaketaren data | Salaketaren epaitegia |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ELKARTE LÓPEZ, Francisco | Iruña | 1978/01/02 | Polizia Nazionalaren polizia etxea | 1978/01/18 | 1978/01/18 | Madrilgo instrukzioko 1 zenbakiko epaitegi zentrala |
| OLANO OLANO, Juan María | Iruña | 1978/01/09 | Polizia Nazionalaren polizia etxea | 1978/01/18 | 1978/01/18 | Madrilgo instrukzioko 1 zenbakiko epaitegi zentrala |
| AYERBE MUJICA, Maximo | Iruña | 1978/01/09 | Polizia Nazionalaren polizia etxea | 1978/01/18 | 1978/01/18 | Madrilgo instrukzioko 1 zenbakiko epaitegi zentrala |
| SAEZ GARCIA BALCES, Fernando | Iruña | 1978/01/10 | Polizia Nazionalaren polizia etxea | 1978/02/04 | 1978/02/05 | Salaketa publikoa |

[27] Lekukotza horietako batzuk Eva Forest-en "*Hau da terrorismoa*" artikuluan azaltzen dira. Artikulu hori 1979an argitaratu zen *Servir al pueblo* Mugimendu Komunistaren egunkariaren 128. alean.

[28] Nafarroako abokatuen kolektiboa.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| NIETO ROMERO, Luciano | Iruña | 1978/02/04 | Polizia Nazionalaren polizia etxea | 1978/02/19 | 1978/02/00 | Salaketa publikoa |
| AYENEA ECHAUZ, Juan Javier | Tutera | 1978/02/16 | Tuterako polizia etxea | 1978/02/19 | 1978/02/00 | Salaketa publikoa |
| GOMEZ VIDAL, Jose Maria | Tutera | 1978/02/16 | Tuterako polizia etxea | | | |
| VALMASEDA CALVO, Jose Luis | Tutera | 1978/02/16 | Tuterako polizia etxea | | | |
| GIL NAVASCUES, Alejandro | Tutera | 1978/02/16 | Tuterako polizia etxea | 1978/05/00 | 1978/05/11 | Donostiako instrukzioko epaitegia |
| VALENCIA, Miguel Angel | Iruña | 1978/05/10 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | 1978/05/21 | 1978/08/05 | Bilboko instrukzioko epaitegia |
| SUESCUN IRUJO, Jesus Maria | Iruña | 1978/05/17 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | | | |
| FLORES ARREGUI, Jose Francisco | Altsasu | 1978/10/04 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | | 1978/10/14 | Iruñeko instrukzioko epaitegia |
| GALARZA OTXOA, Julian | Lizarra | 1978/10/04 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | | 1978/10/14 | Iruñeko instrukzioko epaitegia |
| LOPETEGUI OLASAGANE, Mikel | Lizarra | 1978/10/04 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | | 1978/10/00 | Salaketa publikoa |
| URRA, Jose Luis | Tutera | 1978/11/03 | | 1978/11/10 | 1978/11/14 | Salaketa publikoa |
| LANDA, Miguel | Iruña | 1978/11/13 | Nafarroako Guardia Zibilaren Komandantzia | 1978/11/16 | 1978/11/18 | Donostiako instrukzioko epaitegia |

Bestalde, zenbait txosten kontuan hartu behar dira garai horretan Nafarroan edo nafarrei egindako torturek eta tratu txarrek izandako eraginari buruzko oinarrizko berrikusketa historikoa osatzeko. Dokumentu askok ematen dute, Euskal Herria edo Espainiako estatua epigrafepean, arazo horren berri 1960tik 1978ra bitarte, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko pertsonei buruzko kasu zehatzak jasotzen dituzte.

**Nafarroatik kanpo torturatutako nafarrak**

Urte horietan izandako tortura eta tratu txarren kasu batzuk ez dira azaltzen Nafarroan egindako zerrendetan, baina Foru Komunitatean jaiotako pertsonei eragiten dietenez, kontabilizatu egin behar dira. Horren adibidea da torturatu talde batek 1986an Felipe González Espainiako Gobernuko presidenteari bidalitako idatzia. Lekukotza hori *Tiempo* aldizkariaren 162. zenbakian (1985eko ekainaren 17koa) argitaratu zen esklusiban, titulu honekin: “Martínez Torresen biktimek aurpegia ematen dute. Poliziak torturatuek Feliperi erantzun diote”[29].

[29] Ale horretaz gain, *Tiempo* aldizkariak, 1984ko azaroaren 11n, 130. zenbakian polemika handia sortu zuen lehen orrialde bat egin zuen. Titulu hau zuen: “Tortura egiteaz salatutako polizien zerrenda. Barrionuevok saritutakoak”.

Biktima horiei osotasun fisiko, psikiko eta moralerako eskubidea urratu zieten1971tik 1975era bitarteko aldian.

Esate baterako, **Sara Munárriz Agoretaren** (Getzekoa) edo **Juan Ignacio Lacasta Zabalzaren** (Iruña) kasua da. Biak irakasleak ziren, 1973an atxilotu zituzten; lehenari MCEko kide izatea leporatu zioten eta bigarrenari PCEko kide izatea. Baina egiaztatu ezin izan ditugun kasu gehiago daude, eta komenigarria izanen litzateke kasu horiek mota honetako txostenetan jasotzea.

Felipe Gonzálezi zuzendutako, 1985eko ekainaren 8an sinatutako eta *Tiempo* aldizkarian argitaratutako idazki horretan, hau irakurtzen da:

> *(...) Honako hau baieztatzen dugu: 1) Brigada Politika Sozialak atxilotu eta torturatu egin gintuen 1971etik 1975era bitarte. Halakoak izan ziren torturak, ezen infernu hartatik irteteko suizidio saiakera erabili zuenik ere izan baitzen, beste batek oina mugitu zuen kolpeak ematen zizkiotenean hautsi ziezaioten eta, horrela, ospitalera eraman zezaten; beste batzuk, jipoien ondoren, airean jaitsi behar gintuzten, mugitzeko gai ez ginelako. Zuk esanen zenukeen bezala, presidente jauna, edozein gizakirentzat moralki eta etikoki onartezina den tratua jaso genuen. 2) Informazioko komisario nagusi jauna han destinatuta zegoen eta galdeketetan parte hartzen zuen eta amorragarria da Barrionuevo jaunaren argudioa, alegia, hori polizia-eginbideetan jasota ez dagoela; baina, ministro jauna, presidente jauna, jakin dezazuen esaten dizuegu galdeketetan eta jipoietan Brigada osoak parte hartzen zuela: batzuetan batzuek, beste batzuetan beste batzuek, askotan ia guztiek. Dena den, onartezina da ministro demokrata batek argudioak emateko frankismoko polizia politikoaren datuak erabiltzea.*
>
> *(…) Zer proba geratzen dira orain? Hamar urte baino gehiagoren ostean desagertu egin dira ubelduak eta jarri genituen salaketa judizialek ez zuten balio izan orduan. Baina hitzeko gizon-emakumetzat dugu geure burua, Barrionuevo jauna bezainbeste edo gehiago, eta, jakina, gure ibilbide pertsonalak Martínez Torres jaunarena baino garbiagoak direla uste dugu.*
>
> *(…) Bukatzeko, presidente jauna, Martínez Torres jauna eta Brigada Politiko Sozialeko antzinako beste kide batzuk Barne Arazoetako Ministerioan goi-kargudunak izatea ez da bermerik hoberena salatzen ditugun jardunbide gaitzesgarri horiek egiteari uzteko*.

Ondorengo hauek sinatu zuten gutuna: Ramón Iruretagoyena Marín, aleman irakaslea; 1971ko urtarrilaren 18an atxilotu zuten, Salbuespen Egoeran. Pedro Moren Rodas, enpresaburua, PCEko militantea; bi aldiz atxilotu zuten: 1971ko otsailean eta 1975eko urrian. Félix Matute Cañas, matematikaria; 1971ko otsailean atxilotu zuten, PCEko militantea. Javier Iriarte de Goikoetxea, institutuko irakaslea, PCEko militantea; 1975eko otsailaren 5ean atxilotu zuten. Floreal Targuet Pena, igeltseroa, Zaragozako langile mugimenduko *historikoa*, Aragoiko Alderdi Komunistako komite zentraleko kidea; hiru aldiz atxilotu zuten: 1971ko otsailean, 1971ko abenduan eta 1975eko maiatzean. Sara Munárriz Agoreta, euskara irakaslea, MCEko kidea; 1973ko urtarrilean atxilotu zuten.

Manuel Delgado Echevarría, institutuko irakaslea; bi aldiz atxilotu zuten: 1974ko martxoan eta 1975eko azaroan. Juan Ignacio Lacasta Zabalza, Zaragozako Zuzenbide Fakultateko irakaslea, PCEko kidea; 1973ko otsailean atxilotu zuten. Rosa María Segura Sola, Telefonicako mekanikaria, Langile Komisioetako eta MCEko militantea; 1975eko martxoan atxilotu zuten, Pedro Praena senarrarekin batera. Pedro Praena Pinar, ofizial elektronikaria, MCEko militantea; 1975eko martxoan atxilotu zuten. Fernando Conde Gutiérrez de Álamo, soziologoa, PTEko militantea; 1975eko udan atxilotu zuten[30].

1975ean dekretatutako salbuespen egoera dela-eta beste kasu batzuk ere gehitzen ahal dira[31]; izan ere, zenbait nafar atxilotu zituzten eta Bilboko polizia etxera eraman zituzten galdeketak egiteko, egoera horietan izaten den zigorgabetasun guztiarekin, eskubideak errespetatu gabe[32].

Adibidez, **Jesús María Salinas Pérez**, 32 urtekoa, Olaztikoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 1975eko apirilean: "*Nafarroatik Bilboko burutzara ekarri gintuzten; hor 10 egunez egon nintzen eta bost jipoi eman zizkidaten, bat eta bi orduz aldi bakoitzean. Ezponda prokuradore jaunak salaketa bat bidali dio Segurtasuneko zuzendari nagusiari lekualdaketarengatik, eta beste salaketa bat Gorteei. Bilbotik joan-etorriko bi bidaia egin nituen Iruñera. Behin eta berriz jotzen ninduten*".

**Carlos Zabala Gurmindo**, 21 urtekoa, Olaztikoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 1975eko apirilean: "*Legez kontra eraman ninduten Bilbora. Polizia etxean atxilotu ninduten 10 egunez. Bi orduko jipoia jaso nuen, gelditu gabe*".

**Hilario Urbizu San Román**, 24 urtekoa, Olaztikoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 11 egunez 1975eko apirilean: "*Nafarroatik Bizkaira eraman ninduten, legez kontra. Iruñean hiru orduko jipoia jaso nuen eta Bilbon beste batzuk gehiago*".

**Angel Gurmindo Lizarraga**, 24 urtekoa, Olaztikoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 11 egunez 1975eko apirilean: "*Olaztikoa naiz, baina lan arrazoiak direla medio Eivissan nengoen, handik Bilbora eraman ninduten legez kontra. Hiru jipoi eman dizkidate, ordu batez aldi bakoitzean*".

---

30 PONS PRADES, Eduardo. *Los años oscuros de la transición española*. Bartzelona: Belacqva, 2005, 303-305 or. Ez zen gutun horrekiko erreakzio positiborik izan, baina, aitzitik, 1988ko otsailaren 20ko *El País* egunkarian honako hau azaldu zen Martínez Torresi buruz: "Polizia kondekorazio handiena eman diote Martínez Torresi. José Barrionuevo Barne Arazoetako ministroak polizia merezimenduaren urrezko domina eman dio, hots, polizia eremuan eman daitekeen kondekorazio handiena".

31 Salbuespen egoera hori apirilaren 25ean dekretatu zen Bizkaian eta Gipuzkoan. Profesionalen elkargo askotako abokatuek idazki bat igorri zioten iritzi publikoari, eta honako hau adierazi zuten, besteak beste: "*atxilotuek jasotzen duten tratu ankerra salatu behar dugu, mota guztietako tratu txarrak jasotzen baitituzte edo, are, zuzenean torturatzen baitituzte*" (1975eko ekaineko Informazio Buletina, 10. zk., "Euskal Herriko albisteak salbuespen egoeran").

32 Dokumentazio hori Euskadiko Artxibo Historikoan dago. Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Historikoa. Lehendakaritza Sailaren Funtsa. Salbuespen Egoera Erref.: P.133/2-4. Dokumentu mekanografiatu bat da, atxilotuek Bilboko polizia etxean jasandako tratu txarren lekukotza ugari biltzen dituena.

**Roberto Martínez Olasagarre**, 21 urtekoa, Lakuntzakoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 11 egunez 1975eko apirilean: "*Mota guztietako zortzi jipoi eman zizkidaten. Horren ondorioz, bi saihetsetako lokadura dut eta isuri handi bat ukondoan, ukondoa atera baitidate. Legez kontra eraman ninduten Nafarroatik Bilbora*".

**Josu Kamara**, 20 urtekoa, inkomunikazio erregimenean atxilotu zuten 18 egunez 1975eko maiatzean, eta tratu txarrak jasan zituen denbora horretan.

Azaldutako aurreko dokumentazioari duela gutxiko ebazpen ofizial batzuk gehitzen ahal zaizkio, esate baterako Nafarroako Parlamentuarena edo Iruñeko Udalarena:

**Nafarroako Parlamentua (2016):**

**Erabakia**; horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura erabat baztertzen du[33]. 2016ko maiatzaren 5eko Osoko Bilkuran onetsi zen:

*1.- Nafarroako Parlamentuak erabat baztertzen ditu tortura-jardunak, eta Espainiako Gobernua premiatzen du atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen salbuespenezko legedia indargabetu dezan eta, betiere, atxilotuen eskubide eta berme guztiak errespetatzen direla ziurta dezan.*

*2.- Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu zenbait erakundek –adibidez, Amnesty International-ek edo Tortura Saihesteko Europako Batzordeak– argitaratu dituzten txosten ugariak, baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatuaren aurka jaulkitako zigor-epaiak ere". Ildo horretan, Espainiako Gobernua premiatzen du Torturaren aurkako Itunean ezarritako printzipioak aintzat har ditzan eta Estrasburgoko Auzitegiaren doktrina errepikatua, tortura-salaketa guztiak zorrotz ikertzea gomendatzen duena, bete dezan.*

*3.- Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die torturak eta tratu txarrak jasan dituzten pertsona guztiei, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du zenbait nafar herritarrek egindako tortura-salaketak iker ditzan eta torturen eta tratu txarren biktima izan direnen aintzatespena eta ordaina bultza ditzan, adiskidetzea zein egoera horiek ez errepikatzearen konpromisoa ahalbidetzeko asmoz.*

*4.- Nafarroako Parlamentuak adierazten du nahi duela berme prozesal guztiak errespetatzea inkomunikazioak eta tratu txarrek akusazioak baldintzatu ahal izan dituzten prozesu judizialetan eta, bereziki, laster eginen diren epaiketei dagokienez.*

3

[3] Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-E talde parlamentarioek aurkeztu zuten. 1., 3. eta 4. puntuak Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-Eren aldeko botoekin eta UPN, PSN eta PPNren kontrako botoekin onetsi ziren. 2. puntua Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu, PSN eta I-Eren aldeko botoekin eta UPN eta PPNren kontrako botoekin onetsi zen.

**Iruñeko Udala (2017):**

**Salaketa-idazkia**[34], Iruñeko Udalak 2017-03-17an Iruñeko Epaitegi dekanoaren aurrean aurkeztu zuena. Dokumentuaren oinarria izan zen Udal horrek 2016ko urriaren 27an "Egia, Justizia eta Erreparazioa" titulupean antolatutako jardunaldietan adituek frankismoko krimenen aurkako kereilen inguruan egindako ekarpen tekniko-juridikoa:

José Babiano Mora, Gutmaro Gómez Bravo, Antonio Míguez Macho eta Javier Tébar Hurtado historialariek "Frankismoa eta giza eskubideen urraketa sistemikoa" izenburuarekin idatzitako peritu-txostenean ondorio hauek aipatzen dira, besteak beste:

> *33.- Tortura ohikoa izan zen diktaduraren amaiera arte, baita demokraziarako trantsizio politikoaren urteetan ere. Hain zuzen ere, tortura egiturazko jardun bat izan zen frankismoan, ordena publikoko estatuko funtzionarioek erabiltzen zutena, bereziki Informazioa lortzeko eskualdeko polizia brigadetako kideek, erregimenaren polizia politiko gisa eratuta.*
>
> *"Justicia Democrática" epaile eta fiskal demokratak biltzen zituen legez kontrako erakunde bat zen, eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran argitaratzen zituen aldizkari klandestinoetan poliziaren tortura horiek salatzen zituen, eta horiek benetako zigorgabetasun giro batean egiten zirela esaten zuen. Era berean, nazioarteko erakundeen eta atzerriko zerbitzu diplomatikoen txostenek adierazten zuten hirurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, torturatu egiten zela Espainiako polizia etxeetan, kuarteletan eta espetxeetan.*
>
> *Atxilotuek edozein unetan jasan zitzaketen tratu txarrak eta torturak. Polizia etxera eraman bitartean, Polizia Armatuaren eta Guardia Zibilaren jeepak edo BPSren ibilgailu kamuflatuak izan zitezkeen lehen kolpe indiskriminatuen agertoki, beroan. Baina tortura leku nagusiak Poliziaren Burutzak edo Guardia Zibilaren kuartelak izan ziren. Ziegetan giltzaperatu ostean, atxilotuak ziegak baino handiagoa zen beste areto batera eramaten zituzten banan-banan, eta bertan, agenteek, ordu askotan, era guztietako metodoak erabiltzen zituzten bilatzen zuten informazioa ateratzeko. Tortura saioak eta torturarik gabeko aldiak txandakatu egiten ziren. Azken horietan, atxilotuak leku horretan geratzen ziren, bakarrik, zutik, inon bermatzeko aukerarik izan gabe edo posizio guztiz deserosoetan eskuburdinak jarrita. Hainbat tortura teknika erabili ziren, hala nola «danborra» deitzen zaiona, korronte elektrikoak, «ebakuntza*

[34] Iruñeko Udalaren 2016-12-1eko osoko bilkuraren erabakiaren arabera; horren bitartez baimena eman zen kereila kriminala jartzeko Iruñeko Instrukzio Epaitegietan, epaitegiek iker ditzaten diktadura frankistak egin zituen krimenak, hiri horretako herritarrei eragin zietenak, "Gerra zibilean eta frankismoan Nafarroan jasandako errepresioaren Oroimen Historikoari buruzko Dokumentazio Fondoak" (NUP) egindako peritu-txosnaren arabera.

*gela» eta «bainuontzia». Tortura horiek guztiak deskribatu ditugu txosten honetan, eta, gainera, biktima batzuen zuzeneko lekukotzak gehitu ditugu.*

*Atxiloketak eragindako ondorio fisikoei eta psikologikoei legezko ondorioak eta lanbidearen arlokoak gehitu behar zitzaizkien. Atxilotuen eta torturatuen bizitza etenda geratzen zen. Langileak hiru egun jarraian lanera ez joatea falta oso astun gisa tipifikatuta zegoen lan arloko legerian eta kaleratzeko arrazoi justifikatua zen. Kaleratu ondoren, langilearen izena enpresen artean banatzen zen «zerrenda beltz» batean agertzen zen, eta horrek zaildu egiten zion beste lan bat aurkitzea. Ikasleei dagokienez, atxiloketaren ondorioz zegokien unibertsitate barrutitik kanporatzeko espedientea irekitzen ahal zieten.*

Salaketarekin batera zenbait atxiloturen zuzeneko lekukotzak daude: **Juan Elías Antón Murguiondo** (1966), **Gloria Bosque Ezker** (1973 eta 1975), **Juan Carlos Goñi Ciganda**[35] (1971 eta 1976) eta **Angel Sanz Moreno** (1974 eta 1976).

Kereila horri dagokionez, 2019ko ekainaren 7an, *Diario de Noticias de Navarra* egunkariak idazki bat argitaratu zuen. Idazki horretan garai hartan pairatzen zirenak salatzen dira: isunak, atxiloketak, tratu txarrak eta torturak, erbesteak, espetxea...[36]

---

35 Juan Carlos Goñi Ciganda Iruñean jaio zen 1948ko urtarrilaren 8an, eta lanean aritu zen frankismo garaian eta ondoren. Langileen lan eskubideak eta eskubide sindikalak defendatzeko jarduera gauzatzeko gutxieneko askatasun soziopolitikoak guztiz ukatuak zeudenez, enpresan langileak antolatzera bideratutako ekimenen edozein zantzu sistematikoki erreprimitzen zen testuinguru horretan egin zuen lan. Ondorioz, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, adierazpen librerako eskubidea, grebarako eskubidea eta abar ukatu eta erreprimitu egiten ziren sistematikoki, eskubide horiek lortu edo garatzeko ahalegin txikiena egiten zenean. Bere aktibismo politikoa zela medio, eta nahitaezko soldadutza egiten ari zenean, 1971ko martxoaren 13an atxilotu zuten lehen aldiz eta Iruñeko polizia etxera eraman zuten. Hara eramaten zuten bitartean, agenteen mehatxuak jaso zituen. Behin polizia etxera iritsita, Guardia Zibileko zenbait agentek askotariko torturak egin zizkioten zazpi egunez, kolpeak jaso zituen gorputzaren alde guztietan, baita buruan ere. Eskuburdinak jarri zizkioten eta kokoriko jarrita birak ematera behartzen zuten gorputz osoan ostikoak ematen zizkioten bitartean, belauniko jarri zuten, besoak luzatuta, liburuei eutsiz, eta kolpeak ematen zizkioten besoak jaisten zituen bakoitzean. Halako egoera fisikoan geratu zen ezen arrastaka eraman behar izan zuten ziegetaraino, zutik egon ere ezin zelako. Juan Carlosek agenteetako bat identifikatu zuen: Antonio Creix. Kuartel militarrera berriro eraman ondoren, José María Larrauri gotzainak bisitatu zuen ziegetan, eta jasandako torturen ondorioz zer egoera fisikotan zegoen ikusteko aukera izan zuen. Handik egun gutxira, homilia bat egin zuen atxiloketetan torturak egiten zirela salatzeko. 1976an berriro atxilotu zuten Txantrea auzoan eta polizia etxera eraman zuten. Han, bizkarrean jo zuten eta lesioak eragin zizkioten; zenbait egunetan ospitaleratuta egon behar izan zuen. 1981ean berriro atxilotu zuten, eta zigarro puntak oinekin itzaltzera behartu zuten atxilotu zuten agenteek.

36 Hauek dira egileak: Elías Anton - Martín Arbizu - Xabier Armendariz - José Arriaga - Gotzon Bergerandi - Gloria Bosque - Aingeru Cano - Gotzon Castells - Sabino Cuadra - José Miguel Etxarte - Juan Mari Feliu - Karmele, Alfonso, Jose Mª y Tomás Fdez. de Garayalde - Txaro Goñi - Iñaki Goñi - Arantza Irazabal - Rosa Irisarri - Xanti Jaunarena - Mikel Miguez - Xabier Morras - José A. Pidal - Fermín Rodriguez - Fernando Sáez Garcia-Falces - Pilar Santiago - Bixente Serrano Izko - Libe Urroz - Nekane Zibiriain.

**Nafarroako Parlamentua (2017):**

Gainera, 2017ko apirilean (2017-04-05), Nafarroako Parlamentuak[37] *Hitzorduak* saioaren bigarren edizioa hartu zuen. Saio hori Foro Sozial Iraunkorrak sustatu zuen bizikidetasuna indartzen laguntzeko, "*bake justu eta iraunkorra sendotzeko*" tarteko urrats gisa. Kasu horretan, torturak emakumeengan duen eragina aztertzeko izan zen jardunaldia, eta tortura pairatu zuten pertsonen bost kontakizun hunkigarri entzun ziren.

Ainhoa Aznárez Parlamentuko lehendakariak ireki zuen saioa, "*memoria kritiko eta inklusibo*" baten oinarriak ezartzeko deia eginez. Memoria horrek, "*helburu politikoak erdiesteko indarkeriara jotzeko aukera guztiz desagerrarazi eta deslegitimatzeko berme gisa, biktima guztien errespetuan eta duintasunean oinarritutako kontakizun partekatu bat barne hartuko du*". Aznárezek "*beste biktima horiek egiarako, justiziarako eta erreparaziorako duten eskubidea*" aldarrikatu zuen.

Parlamentuko lehendakariak "*biktima bakoitza bere espezifikotasunetik aitortzeko"* eskatu zuen, *"edozein direla ere haren jatorria eta eskubide eta askatasunen urratze bakoitzaren atzean dagoen babes soziala eta esanahia*", eta Estatuari eskatu zion "*torturak egin direla*" onartzeko.

Aurkezpenaren ondoren, lehen mahai-ingurua, "*Emakume gisa torturatu naute*" izenekoa egin zen. Bertan **Gloria Bosque** (1973 eta 1975), **Mertxe González** (1983), **Mariló Gorostiaga** (1990), **Ainara Gorostiaga** (2002) eta **Izaskun Juárez** (2010) aritu ziren. Solasaldi horretan Yolanda Resano izan zen moderatzailea.

**Gloria Bosque** 1973ko ekainean eta 1975eko irailean atxilotu zuten. Bere bi inkomunikazio aldietako bizipenak kontatu zituen, nola sentitu zen "*iraindua emakumea izate hutsagatik*". "*Biluzi egin ninduten eta, kolpe eta mehatxuez gain, era guztietako umiliazio eta laido sexualak egin zizkidaten, hitzez eta egitez. Trauma psikologikoa, izua, hainbesterainokoak izan ziren non burua galdu eta zoratu eginen nintzela ere pentsatu nuen*".

Geroago, 77ko Amnistia Legearen babesean aske geratu zenean, Bosquek jendaurrean salatu zuen bere esperientzia, lekukotasuna eman zuen frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereilan, eta Iruñeko Udalak 1936ko kolpearen ondorioen kontra sustatutako auzian pertsonatu zen.

Bestalde, 2017an, torturak jasan zituzten pertsona askok Nafarroako Gobernuari eskatu zioten "*beharrezko mekanismo eraginkorrak*" abian jar zitzala "*torturaren errealitatea bera eta denboran zehar praktika orokortua izan zela*" aitortzeko.

Kolektiboaren eleduna **Elías Antón** izan zen, eta harekin batera "*oso belaunaldi desberdinetako*" beste bost biktima egon ziren, 60ko hamarkadatik igarotako

---

[37] Informazio osoa eta lekukotzak Nafarroako Parlamentuaren webgunean daude: https://www.parlamentodenavarra.es/eu/komunikazio/hitzorduak-bilkuran-torturaren-alderdi-sexista-aztertu-da-parlamentuan-emakumeen-aurkako

hamarkada bakoitzeko biktima bat. "*Iluntasunetik argirako bide"* horretan protagonismoa hartzeko eskatu zion foru gobernuari, eta, ondoren, adierazi zuen bere ustez iritsi dela garaia "*egoera horri amaiera emateko, bizikidetza normalizatua eta erabatekoa lortzeko*".

**Antónek** prentsaurrekoan aldarrikatu zuenez, hainbat polizia kidegok "*egoera politiko desberdinetan"* eragindako indarkeria "*sistematikoki ukatu, isildu eta ezkutatu dute Estatuko botereek*", eta horrek *"biktimizazio bikoitza*" dakarkie biktimei, "*pairatutakoagatik*" eta "*aitorpen faltagatik*". "*Badakigu Nafarroako ehunka edo milaka pertsona esertzen ahal zirela hemen, torturaren krudeltasuna pairatu dutenak ez ezik, ukoaren, ezkutatzearen eta zigorgabetasunaren krudelkeria gogorragoa ere pairatu dutenak, alegia*", salatu zuen **Elías Antónek**.

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuta, 2019ko otsailean[38], "Nafarroako Torturatuen Sarea" sortu zen. Sare horrek iragarri zuen alderdi politikoekin biltzeko asmoa zuela gai horri buruzko ikerketa ofiziala egin zezaten eskatzeko, foru gobernuak babestuta.

Halaber, 2019ko otsailean, Amnistia Internazionaleko ordezkaritza bat [39] Nafarroako Parlamentura joan zen autonomia erkidegoetako indar politikoen eta indar politiko zentralen artean adierazpen instituzional bat sustatzeko, egiarako, justiziarako eta erreparaziorako urratsak egiteko, bai ETAren biktimen kasuan, bai beste talde batzuen biktimen kasuan (esate baterako GAL), baita terrorismoaren aurkako borrokaren testuinguruan segurtasun indar eta kidegoek eragindako torturaren eta bestelako tratu txarren biktimen kasuan ere.

### 3.4.4.- Ordena Publikoko Auzitegia

1963tik 1977ra bitarteko aldian, Ordena Publikoko Auzitegia (OPA) izan zen diktadura frankistaren jazarpen tresna[40]. Hainbat nafar errepresaliatu zituzten auzitegi horretan. Atxiloketa arbitrarioak, torturak eta tratu txarrak jasan zituzten, baita espetxealdia ere, egoera horietako protagonista askoren adierazpenen bidez agerian geratzen den bezala.

Hori dela eta, ez dugu ahaztu behar aztertzen ari garen aldia, 1960tik 1978ra bitartekoa, Ordena Publikoko Auzitegiaren errepresioak baldintzatu zuela. Auzitegi hori instantzia judizial berezia izan zen, eta haren xedea zen erregimen diktatorial horretan delitu politikotzat hartzen ziren jokabideak erreprimitzea.

---

[38] Ikus: https://navarra.elespanol.com/articulo/sociedad/red-personas-torturadas-navarra-investigacion-oficial-tortura/20190202182640244591.html

[39] Ikus: https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/amnistia-internacional-pide-en-el-parlamento-navarro-que-todas-las-victimas-tengan-acceso-a-verdad/. Txostenaren izenburua "Iraganari aurre eginez etorkizuna eraiki" izenburua du, eta testuinguru historikoari buruzko atalean Nafarroako egoera espezifiko batzuk aipatzen dira (https://doc.es.amnesty.org/ms-opac/recordmedia/1@000028922/object/36694/raw).

[40] Aurrekari gisa, "Masoneria eta Komunismoaren Errepresiorako Auzitegi Berezia" izan zen 1940tik 1964ra bitarte.

Nolanahi ere, errepresio hori zenbait hamarkada iraun zuen diktadura luze batean botere publikoek gauzatutako errepresioaren zati bat baino ez zen izan. Izan ere, zoritxarreko oroimena utzi zuten gerraosteko auzitegi militarren ordezkoa zen Ordena Publikoko Auzitegia[41].

Nafarroako eremuan izandako errepresioa ezagutzeko abiapuntu baliagarria dira OPAren epaiak. Epai horiek Juan José del Águilak eskaneatu eta informatizatu zituen[42] eta 2007an argitaratu zituzten Asturiasko Gobernuak eta Fundación Abogados de Atocha Fundazioak[43].

Horrela, Ordena Publikoko Auzitegiak Nafarroan epaitutako pertsonen zerrendan 253 kasu agertzen dira. Jarraian, zerrenda emanen dugu, alfabetikoki ordenatuta; horrez gain, torturak edo tratu txarrak salatu zituzten ere adieraziko ditugu, betiere guk ezagutzen ditugunak:

| 1. deitura | 2. deitura | Izena | Epaiaren data | Epaiaren zenbakia | Generoa |
|---|---|---|---|---|---|
| ABADIA | JIMENEZ | JOSE MANUEL | 1973/10/05 | 375/73 | G |
| ABENGOECHEA | LAITA | NATIVIDAD CONSTANCIA | 1966/11/16 | 128/66 | E |
| ABRAHAM | AYALA | JOSE NICOLAS | 1968/02/22 | 37/68 | G |
| AGUADO | MORALES | SATURNINO BONIFACIO | 1973/03/14 | 117/73 | G |
| AGUNDEZ | CAMINOS | BERNARDO JOSE | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| ALEGRIA | SARASIBAR | FELIPE | 1972/10/09 | 206/72 | G |
| ALONSO | OSES | JESUS | 1971/11/29 | 305/71 | G |
| ALVAREZ | LEZA | NICASIO MANUEL | 1972/10/04 | 200/72 | G |
| **ALVARO** | **ELIZALDE** | **RICARDO PASCUAL** | **1974/05/29** | **281/74** | **G** |
| ALZUETA | ARRASATE | JESUS | 1968/06/08 | 121/69 | G |
| AMATRIAIN | AMATRIAIN | GERMAN PEDRO | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| AOS | NAGORE | JESUS MARIA | 1971/11/29 | 305/71 | G |
| AQUERRETA | MAEZTU | JUAN JOSE | 1974/02/11 | 77/74 | G |
| **ARANGOA** | **SATRUSTEGI** | **MARIA AMPARO** | **1972/12/12** | **311/42** | **E** |
| ARJONA | ECHEVERRIA | ANGEL | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| ARTIEDA | ARBIZU | MARIA NIEVES | 1976/04/07 | 95/76 | E |
| ARTIEDA | GIL | JESUS MARIA | 1970/05/22 | 151/70 | G |
| ASIAIN | ARAGON | ANGEL | 1973/03/14 | 117/73 | G |
| **ASTIVIA** | **APECECHEA** | **MARTIN MARIA** | **1972/12/12** | **311/42** | **G** |
| ASURMENDI | ARINA | JOSE ANTONIO | 1969/10/17 | 262/69 | G |
| AYUCAR | BURDASPAR | JESUS IGNACIO | 1974/11/05 | 469/74 | G |

[41] 1963ko abenduan sortu zen eta 1977ko urtarrilean desegin zen. 1977. urtetik aurrera Auzitegi Nazionala izena erabili du, gaur egun indarrean dagoen auzitegi berezi gisa.

[42] ÁGUILA, J.J. 2001. *El TOP. La represión de la libertad (1963-1977)*, Bartzelona, Planeta.

[43] Fundación Abogados de Atocha Fundazioak CD batean grabatutako datu base bat aurkeztu zuen. Datu base horren izenburua "Ordena Publikoko Auzitegiaren epaiak" zen, eta Juan José del Águila Torres Zuzenbideko doktoreak eta magistratuak zuzendu zuen. Lan horretan, Rubén Vega eta José Gómez Alén historiako irakasleek parte hartu zuten.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| AZPIROZ | IRIARTE | MANUEL | 1975/04/07 | 173/75 | G |
| BALDA | PEREZ | JESUS MARIA | 1975/03/17 | 134/75 | G |
| BARCO | OLARTE | FRANCISCO | 1966/03/03 | 42/66 | G |
| BARRAGAN | LOS ARCOS | ANTONIO | 1965/08/07 | 66/65 | G |
| BARRENA | MENDIOROZ | ELIAS | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| **BARRIOLA** | **ZABALETA** | **JOSE FRANCISCO** | **1972/12/12** | **311/72** | **G** |
| BARRIOS | DE SANTOS | MIGUEL | 1973/02/21 | 77/73 | G |
| BAZTAN | CARRERA | JESUS MARIA | 1973/02/21 | 77/73 | G |
| **BELZA** | **AYERBE** | **JOSE JAVIER** | **1967/04/12** | **41/67** | **G** |
| BERAIZ | ARTOLA | TOMAS MARIA | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| BERGERA | REGLERO | JOSE | 1971/03/12 | 60/71 | G |
| BORDA | REMIRO | ALFREDO | 1966/03/24 | 48/66 | G |
| **BOSQUE** | **EZQUER** | **MARIA GLORIA** | **1974/12/05** | **522/74** | **E** |
| **BOSQUE** | **EZQUER** | **MARIA GLORIA** | **1976/06/07** | **149/76** | **E** |
| CAMARA | URQUIZO | ROBERTO | 1967/12/06 | 143/67 | G |
| CAMARERO | NUÑEZ DE ASTRAIN | LUIS DE GONZAGA JOSE JULIAN | 1974/09/30 | 397/74 | G |
| CARBALLES | SANTISO | JOSE MARIA | 1974/06/10 | 305/74 | G |
| CARRICA | ZABALA | FRANCISCO JAVIER | 1969/10/11 | 297/70 | G |
| CASTAÑARES | SAMANES | JAVIER | 1972/10/30 | 232/72 | G |
| **CATALAN** | **SANCHEZ** | **CARLOS JOSE** | **1974/03/23** | **155/74** | **G** |
| CENZANO | MARTINEZ DE MORETIN | MARIA DEL PILAR | 1974/05/29 | 280/74 | E |
| CHANGO | SANZ | JUAN TOMAS | 1971/06/18 | 185/71 | G |
| CHANGO | SANZ | JUAN TOMAS | 1974/12/23 | 558/74 | G |
| CHIVITE | NAVASCUES | ADOLFO | 1971/09/16 | 216/71 | G |
| COZAR | LINARES | CARLOS JOSE | 1975/06/09 | 308/75 | G |
| CRUZ | VALDOVINOS | JOSE MANUEL | 1966/10/14 | 106/66 | G |
| CUNCHILLOS | ARMENDARIZ | TEOFILO | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| DEL BARRIO | IGLESIAS | BENITO | 1976/02/25 | 60/76 | G |
| DELGADO | GONZALEZ | JOSE ANTONIO | 1973/02/05 | 50/73 | G |
| DIAZ | YARZA | JUAN JOSE | 1974/09/30 | 397/74 | G |
| DIEZ | ALLO | JESUS | 1972/12/04 | 295/72 | G |
| DIEZ | GONZALEZ | FRANCISCO ANTONIO | 1975/04/25 | 210/75 | G |
| DOMEÑO | LERGA | ANTONIO | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| DONAZAR | CARBONELL | LUIS | 1972/12/06 | 301/72 | G |
| ECHEVERRIA | EZPONDA | FRANCISCO JAVIER | 1976/05/10 | 124/76 | G |
| ECHEVERRIA | GOENAGA | LADISLAO IGNACIO | 1970/06/26 | 182/70 | G |
| ECHEVERRIA | LOPEZ | JAVIER MARIA | 1971/01/25 | 15/71 | G |
| EDERRA | SANZ | FERNANDO | 1969/10/10 | 297/69 | G |
| EDERRA | SANZ | FERNANDO | 1974/11/05 | 469/74 | G |
| EQUIZA | CASTILLO | GERARDO | 1974/11/05 | 469/74 | G |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ERDOCIAIN | SANTESTEBAN | MARIA CRUZ | 1973/06/11 | 278/73 | E |
| **ERDOZAIN** | **GARDE** | **MIGUEL ANGEL** | **1967/12/14** | **150/67** | **G** |
| ERDOZAIN | GARDE | MIGUEL ANGEL | 1969/01/18 | 10/69 | G |
| ESARTE | GOYENA | JOSE LUIS | 1972/07/01 | 175/72 | G |
| ESCALADA | NAVARIDAS | FRANCISCO JAVIER | 1967/07/10 | 86/67 | G |
| ESCOBOSA | SAN MIGUEL | FRANCISCO JAVIER | 1974/02/01 | 50/74 | G |
| ESCUBI | LARRAZ | FRANCISCO JAVIER | 1970/10/27 | 243/70 | G |
| **ESCUBI** | **LARRAZ** | **JOSE MARIA LUIS JUAN DE DIOS** | **1966/01/25** | **13/66** | **G** |
| ESCUBI | LARRAZ | JOSE MARIA LUIS JUAN DE DIOS | 1967/02/03 | 12/67 | G |
| ESCUBI | LARRAZ | JOSE MARIA LUIS JUAN DE DIOS | 1967/11/23 | 134/67 | G |
| **FELIU** | **DORD** | **JUAN MARIA** | **1969/01/20** | **10/69** | **G** |
| FERNANDEZ | ARTOLA | JOSEFINA | 1974/09/30 | 397/74 | E |
| FERNANDEZ | SAN MARTIN | ERNESTO | 1975/01/20 | 17/55 | G |
| FERNANDEZ | SANMARTIN | ERNESTO | 1969/10/27 | 282/69 | G |
| FERNANDEZ | VIGUERA | BLANCA SOLEDAD | 1972/12/04 | 295/72 | E |
| **FUNES** | **GOICOECHEA** | **HIGINIO** | **1975/10/29** | **455/75** | **G** |
| GARATE | BALDA | MIGUEL | 1975/03/17 | 134/75 | G |
| GARBISU | ORRIO | JUAN | 1976/01/21 | 17/76 | G |
| **GARCIA** | **GARDE** | **JESUS MARIA** | **1969/06/16** | **175/69** | **G** |
| **GARCIA** | **GARDE** | **JESUS MARIA** | **1970/03/06** | **68/70** | **G** |
| GARCIA | JIMENEZ | EMILIO | 1974/07/11 | 349/74 | G |
| GARCIA | MARTINEZ | EUGENIO | 1972/06/28 | 168/72 | G |
| GARCIA | SAEZ DE URTURI | JUAN JOSE | 1968/12/13 | 206/68 | G |
| GARCIA | SOBRINO | JOAQUIN MARIA | 1975/06/09 | 308/75 | G |
| GARCIA | VELASCO | DAMIAN | 1971/05/04 | 122/71 | G |
| GARCIA DE ACILU | GOYACHE | MIGUEL ANGEL | 1971/06/16 | 175/71 | G |
| GARCIA-FALCES | GARIJO | MARIA JESUS | 1968/12/13 | 206/68 | E |
| GARITACELAYA | SALDISE | JOSE | 1975/04/28 | 217/75 | G |
| GASTON | FERNANDEZ | FELIX | 1969/10/10 | 296/69 | G |
| GASTON | FERNANDEZ | MIGUEL | 1969/10/11 | 296/69 | G |
| GASTON | FERNANDEZ | MIGUEL ISIDRO | 1969/01/13 | 5/69 | G |
| GASTON | FERNANDEZ | MIGUEL ISIDRO | 1976/03/26 | 76/76 | G |
| GIRAL | PASCUALENA | PEDRO MARIA | 1969/03/14 | 72/69 | G |
| GIRAL | PASCUALENA | PEDRO MARIA | 1970/03/16 | 85/70 | G |
| GLARIA | OBANOS | ESTEBAN | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| GOIZUETA | NAPAL | JUAN JOSE | 1971/09/29 | 232/71 | G |
| GOLDARAZ | NAVARRO | JOSE FELIX | 1968/06/07 | 121/68 | G |
| GONZALEZ | DE ASSAS | MANUEL | 1974/15/09 | 542/74 | G |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| GOÑI | AZANZA | EUSEBIO | 1973/03/14 | 117/73 | G |
| GOÑI | BARRENA | JACINTO | 1974/05/20 | 276/74 | G |
| GOÑI | GIRONES | LUIS ANTONIO | 1975/01/22 | 22/75 | G |
| GOÑI | LARRASOAIN | BENITO MODESTO | 1971/11/29 | 305/71 | G |
| GURPIDE | IBARROLA | FRANCISCO JAVIER | 1972/10/23 | 218/72 | G |
| HERNANDO | SERNA | ANGEL | 1969/10/17 | 262/69 | G |
| IBIARTE | LOPEZ DE GOICOECHEA | FRANCISCO | 1972/05/19 | 129/72 | G |
| IDOATE | LANZ | JOSE ANTONIO | 1967/06/21 | 74/67 | G |
| **IDOATE** | **LANZ** | **JOSE ANTONIO** | **1969/01/19** | **10/69** | **G** |
| IGARTUA | ECHARRI | JUAN MANUEL | 1975/04/07 | 173/75 | G |
| IJURCO | IGOA | FERMIN | 1976/04/07 | 95/76 | G |
| INDA | ORELLA | ROSA MARIA NIEVES | 1968/04/26 | 86/69 | E |
| IRIARTE | OTERMIN | EUSEBIO | 1970/10/27 | 243/70 | G |
| IRIARTE | VELAZ | JOSE JULIAN | 1975/10/27 | 448/75 | G |
| IRIGARAY | IMAZ | JOSE ANGEL FRANCISCO | 1966/01/25 | 13/66 | G |
| IRIGOYEN | PRIETO | MANUEL | 1976/04/07 | 95/76 | G |
| **IRISARRI** | **GALAR** | **JOSE LUIS** | **1974/06/10** | **309/74** | **G** |
| ISO | CUARTANGO | PRIMITIVO | 1969/10/18 | 262/70 | G |
| ITURGAIZ | AROCENA | RICARDO PABLO | 1969/10/19 | 262/71 | G |
| ITURRIOZ | YURRITA | EUGENIO | 1973/06/11 | 278/73 | G |
| IZCO | ELIZAGARAY | JOSE MARIA | 1969/10/20 | 262/72 | G |
| JIMENEZ | JIMENEZ | GABRIEL | 1975/02/21 | 86/75 | G |
| JIMENEZ | NESPEREIRA | MIGUEL ANGEL | 1969/10/08 | 255/69 | G |
| JIMENEZ | OROZ | JOAQUIN | 1972/10/04 | 200/72 | G |
| JUAMPEREZ | EGUINOA | EUSEBIO | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| **JUANICORENA** | **GOROSTARAZU** | **FLORENTINO** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| **JUANICORENA** | **JUANICORENA** | **PEDRO MARIA** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| **LACAR** | **TELLECHEA** | **JOSE** | **1972/12/12** | **311/42** | **G** |
| LACUEY | SANZ | FRANCISCO JAVIER | 1975/10/06 | 391/75 | G |
| LAGUARDIA | ASIAIN | JOSE CARLOS | 1975/03/01 | 104/75 | G |
| LANGARICA | MARTINEZ | JOSE JOAQUIN | 1974/10/18 | 431/74 | G |
| LANZ | BENITO | FRANCISCO JAVIER | 1976/07/06 | 158/76 | G |
| LARRALDE | ECHEVARRIA | DOMINGO | 1974/02/27 | 114/74 | G |
| LARRALDE | ECHEVARRIA | FERMIN | 1974/02/27 | 114/74 | G |
| LARRAÑETA | ARMENDARAIS | ANTONIO | 1969/10/21 | 262/73 | G |
| LARRAZA | LACUNZA | JUAN LUIS | 1976/04/07 | 95/76 | G |
| LARRAZA | LACUNZA | RAFAEL | 1976/04/07 | 95/76 | G |
| LARRUMBE | LOPEZ | JUAN | 1965/12/15 | 111/65 | G |
| LAZCOZ | GOÑI | FELIX ANDRES | 1976/04/07 | 95/76 | G |
| LECUMBERRI | ARRARAS | MARIA DOLORES | 1975/02/17 | 70/75 | G |
| LECUNA | EGUIA | FAUSTINO | 1975/03/17 | 135/75 | G |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| LEZUNEGUI | ORMAZABAL | BERNARDO JOSE | 1974/02/27 | 112/74 | G |
| LOIZU | FERNADEZ-REINOSO | MAXIMO | 1968/12/23 | 215/68 | G |
| LOPEZ | MUÑOZ | JUAN | 1971/03/12 | 60/71 | G |
| LUCAS | ANDRADES | AURELIO | 1971/05/04 | 122/71 | G |
| LUQUIN | JUANIZ | ROMAN | 1971/09/29 | 232/71 | G |
| MAIZA | LACUNZA | FRANCISCO | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| MANGADO | CORTES | MARIA LUISA | 1971/11/22 | 287/71 | E |
| MARTIN | HERREROS | FRANCISCO | 1976/03/05 | 63/76 | G |
| MARTINEZ | ANGOS | CARMEN | 1975/04/18 | 188/75 | E |
| MARTINEZ | BEADES | MARCELINA | 1973/03/30 | 143/73 | E |
| MARTINEZ | ESCALONA | JOSE | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| MARTINEZ | LEGANES | PRUDENCIO | 1975/12/22 | 526/75 | G |
| MARTINEZ | MARTIN | JAIME | 1973/03/26 | 83/43 | G |
| MARTINEZ | MENDIA | FRANCISCO JAVIER | 1967/07/10 | 86/67 | G |
| MARTINEZ | MENDILUCE | LUIS | 1968/06/12 | 125/68 | G |
| MARTINEZ | PINZOLAS | EMILIO JOSE | 1969/05/14 | 136/69 | G |
| MARTORELL | PEREZ | ANGEL MARIA | 1975/02/12 | 65/75 | G |
| MARTORELL | PEREZ | ANGEL MARIA | 1975/02/12 | 66/75 | G |
| MENDIGUREN | SOTELO | JULIAN MARIA | 1972/10/09 | 205/72 | G |
| MENDINUETA | ARAÑA | JOSE MARIA | 1967/11/02 | 118/67 | G |
| MENDIVE | SARASIVAR | JOSE LUIS | 1972/11/20 | 262/72 | G |
| **MENDIVIL** | **LIZARRAGA** | **JESUS MARIA** | **1971/11/29** | **305/71** | **G** |
| MIQUELEIZ | LANDA | ISIDRO | 1964/07/08 | 41/64 | G |
| MONTOYA | MONTOYA | MANUEL | 1974/02/08 | 74/74 | G |
| MORENO | LANAU | JULIAN | 1976/06/19 | 153/76 | G |
| MUGUERZA | LASA | JOSE ANTONIO | 1965/12/15 | 111/65 | G |
| MUNARRIZ | AGORRETA | MARIA ANGELES | 1974/12/09 | 539/74 | E |
| MUNARRIZ | AGORRETA | SARA | 1974/12/09 | 539/74 | E |
| MURGUI | BAQUEDANO | NATIVIDAD | 1975/11/10 | 474/75 | E |
| MURILLO | BRAVO | MARIA LUISA | 1973/10/05 | 376/76 | E |
| **MUTUBERRIA** | **ECHEVARRIA** | **LUIS** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| **MUTUBERRIA** | **IBARRA** | **JESUS MARIA** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| NAVARRO | ESNAOLA | MARTIN ANTONIO | 1971/04/28 | 118/71 | G |
| **OLAECHEA** | **IRIARTE** | **DOMINGO** | **1972/12/12** | **311/42** | **G** |
| OLAECHEA | SAGASTIBELZA | CRISTOBAL | 1966/12/30 | 143/66 | G |
| OLALDE | NIEVAS | ANTONIO | 1971/01/25 | 15/71 | G |
| ORCOYEN | AROSTEGUI | FERMIN | 1971/03/12 | 60/71 | G |
| OROZ | MENDIVE | ISIDORO | 1975/10/06 | 392/75 | G |
| OROZ | NAVARRO | JOSE SERGIO | 1975/09/26 | 365/75 | G |
| OSANZ | CEBRIAN | CESAR | 1974/10/11 | 421/74 | G |
| OSTA | CLAVERIA | MIGUEL | 1972/12/12 | 311/42 | G |
| OSTA | MURILLO | LEON | 1972/12/12 | 311/42 | G |
| OTEGUI | OTEGUI | MANUEL | 1969/10/01 | 242/69 | G |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| OTEGUI | OTEGUI | MANUEL | 1975/07/14 | 348/75 | G |
| PALADINI | TURULLOLS | JOSE EDUARDO | 1973/12/17 | 504/73 | G |
| PARDO | IGUZQUIZA | MARIA ESPERANZA | 1972/05/19 | 129/72 | E |
| PASCUAL | AYUCAR | JOSE JAVIER | 1966/01/25 | 13/66 | G |
| PELEGRIN | RIÑOL | MARIA | 1969/10/22 | 262/74 | E |
| PELLEJERO | CORRES | ANGEL | 1969/07/04 | 200/69 | G |
| PEÑA | ERASO | JESUS MANUEL | 1971/03/29 | 80/71 | G |
| PEREZ | AZNAR | FLORENCIO | 1971/10/05 | 235/71 | G |
| PEREZ | SAN MARTIN | VICTOR | 1972/11/29 | 286/72 | G |
| PEREZ | SOLA | ANGEL | 1975/03/20 | 137/75 | G |
| PETRIRENA | AZPIAZU | JUAN CORNELIO | 1970/06/26 | 182/70 | G |
| PITA | LANDIVAR | JESUS MARIA | 1974/12/06 | 534/74 | G |
| POZO | DOMENECH | LONGINO PEDRO | 1969/10/17 | 262/69 | G |
| QUESADA | ORTIZ | ANTONIO MARIA | 1975/10/27 | 448/75 | G |
| REBOLE | REDIN | MARIA JESUS | 1974/10/11 | 421/74 | E |
| RECALDE | BEAUMONT | JESUS MARIA | 1971/02/12 | 30/71 | G |
| RECARTE | ARAMENDIA | MIGUEL | 1966/10/10 | 103/66 | G |
| **REGUERA** | **CASTRO** | **FRANCISCO** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| **REGUERA** | **CASTRO** | **MANUEL** | **1974/12/05** | **522/74** | **G** |
| REY | BACAICOA | JOSE IGNACIO | 1975/02/17 | 70/75 | G |
| RODRIGUEZ | DIAZ DE CERIO | JESUS BENJAMIN | 1967/01/18 | 7/68 | G |
| RODRIGUEZ | GARRAZA | JUAN CARLOS | 1967/07/11 | 86/68 | G |
| RODRIGUEZ | SAIZ | GERMAN | 1974/12/05 | 522/74 | G |
| ROGER | REMON | ANTONIO | 1975/11/28 | 507/75 | G |
| RUBIO | GARCIA | JUAN | 1974/03/27 | 165/74 | G |
| **RUIZ** | **BENJUMEA** | **FAUSTO** | **1969/01/17** | **10/69** | **G** |
| RUIZ | ELIZALDE | FRANCISCO JAVIER | 1975/03/03 | 112/75 | G |
| RUIZ | QUINTANA | ILDEFONSO | 1966/01/19 | 8/66 | G |
| RUIZ DE LARRINAGA | MARTINEZ DE MORETIN | MARIA DEL PUY | 1969/07/11 | 214/69 | E |
| SALAS | GONZALEZ | VICTOR | 1973/03/14 | 177/73 | G |
| SAN CRISTOBAL | SUAREZ | IGNACIO | 1969/10/21 | 269/69 | G |
| SAN JULIAN | JIMENEZ | JOSE | 1973/11/19 | 448/73 | G |
| SAN MARTIN | MARITORENA | JOSE MARIA | 1972/12/06 | 301/72 | G |
| SAN ROMAN | ROMARATEGUI | MARTIN IGNACIO | 1965/05/10 | 41/65 | G |
| SAN VICENTE | SANCHO | VICTORINO | 1969/09/26 | 234/69 | G |
| SANCHEZ | ANDUEZA | MIGUEL | 1969/09/19 | 226/69 | G |
| SANCHEZ | CORTAZAR | FRANCISCO | 1968/06/07 | 121/68 | G |
| SANCHEZ | CORTAZAR | FRANCISCO | 1973/06/11 | 273/73 | G |
| SANCHEZ | GRACIA | MANUEL ANGEL | 1974/03/18 | 148/74 | G |
| SANCHEZ | HERNANDEZ | LORENZO | 1969/10/17 | 262/69 | G |
| SANCHEZ-MARCO | SANCHEZ | IGNACIO | 1975/03/22 | 144/75 | G |
| SANCHO | BIURRUN | JESUS MIGUEL | 1975/02/12 | 65/75 | G |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| SANZ | MAÑERU | APARICIO | 1971/07/02 | 205/71 | G |
| SARALEGUI | IRIBARREN | MIGUEL FERMIN | 1975/03/22 | 144/75 | G |
| SERRANO | JUARISTI | ANTONIO | 1967/07/10 | 86/67 | G |
| SOLA | URRA | JOSE ANTONIO | 1972/02/28 | 14/72 | G |
| SORET | LAFRAYA | PABLO | 1973/05/28 | 247/73 | G |
| SUCUNZA | SAGASTIBELZA | MIGUEL ANGEL | 1975/04/07 | 173/75 | G |
| TELLECHEA | ARTIEDA | MARIA PURIFICACION | 1976/03/05 | 64/76 | E |
| TOLOSA | DE LA FUENTE | RAMON | 1971/01/25 | 15/71 | G |
| UBIRIA | MAYA | ESTEBAN | 1975/09/24 | 358/75 | G |
| URIBE | SANCHEZ | ANDRES | 1972/11/20 | 268/72 | G |
| URRIZALQUI | AZPIROZ | RAMON | 1970/10/27 | 243/70 | G |
| URTASUN | JIMENEZ | SANTIAGO | 1968/06/09 | 121/70 | G |
| URTIAGA | POZUETA | JUAN MARIA | 1970/12/04 | 287/70 | G |
| USTARROZ | FERNANDEZ | JESUS FIDEL | 1974/10/15 | 423/74 | G |
| VALES | GARCIA | PEDRO MANUEL | 1971/11/29 | 305/71 | G |
| VAZQUEZ | LOPEZ | MIGUEL ANGEL | 1973/09/21 | 335/736 | G |
| VAZQUEZ | MAREUL | PEDRO MARIA | 1971/03/12 | 60/71 | G |
| VENTURA | SANJUAN | FRANCISCO JAVIER | 1970/10/23 | 235/70 | G |
| VICENTE | HERRERO | JUAN ANGEL | 1969/03/07 | 63/69 | G |
| VIDONDO | MEDRANO | FRANCISCO JAVIER | 1972/11/28 | 280/72 | G |
| **ZABALETA** | **ZABALETA** | **MARTIN JOSE** | **1972/12/12** | **311/42** | **G** |
| ZABALO | EZCURRA | FRANCISCO | 1975/04/07 | 173/75 | G |
| ZABALZA | GOÑI | FERMIN | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| ZABALZA | GOÑI | MIGUEL ANGEL | 1975/03/17 | 135/75 | G |
| ZARATIEGUI | ARMENDARIZ | JOSE IGNACIO | 1972/11/20 | 264/72 | G |
| ZUAZU | NAGORE | MIGUEL | 1970/03/13 | 80/70 | G |
| ZUBILLAGA | AUZA | JOSE | 1975/03/17 | 134/75 | G |

## 4.- Metodologia eta egindako jarduketak

### 4.1.- Erabilitako metodologiaren deskribapena

Ikerketa honen izaera dela eta, lana metodologia deskribatzaile eta interpretatzaile batean oinarrituta egin dugu, 1960tik 1978ra bitarteko aldian Nafarroan izandako torturaren eta tratu txarren fenomenoa kuantifikatzeko, deskribatzeko eta ezagutzeko.

Azterlan honetan erabili diren datuak sentiberatasunez lantzekoak direnez, azterlanaren diseinua eta metodologia Euskal Herriko Unibertsitateko Gizakiekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordeari (GIEB) bidali zitzaion. Batzorde horrek aldeko irizpena eman zuen, eta horrek bermatzen du azterlana bat datorrela printzipio etikoekin eta legearekin.

Orientazio metodologikoa mistoa da, eta teknika kualitatiboak eta kuantitatiboak baliatzen ditu proposatutako helburuak lortzeko.

### 4.2.- Ikerketa gauzatu bitartean egindako jarduketak

Erabilitako teknikak zeregin hauetan zehaztu dira:

A) Lege esparruaren azterketa

a) Esparru kontzeptualaren definizioa eta aztertutako aldian indarrean zeuden torturaren eta tratu txarren aurkako berme sistema juridikoen azterketa (barnekoak eta nazioartekoak).
b) Bibliografiaren berrikuspena eta Nafarroan izandako torturaren eta tratu txarren fenomenoari buruzko informazio iturriak biltzea, batez ere 1960-2013 aldiari buruzko txostenak, deklarazio espezifikoak eta epai judizialak.

B) Tratu txarren eta torturen kasuak eta salaketak biltzeko metodologiaren definizioa.

- Informazioa biltzeko tresna gisa datu base bat diseinatu da File Maker programan, eta hor erregistratu dira kasu bakoitzari buruzko datuak. Biktimekiko lanari heltzeko, proiektuari buruzko informazio orri bat egin da, baita proiektuan parte hartzeko behar den dokumentazioa ere: inkesta, baimen informatua eta egitateak berresteko dokumentua.

- Torturaren edo tratu txarren kasu egiaztatu bakoitzeko, ikertzaile taldeak espediente bat ireki du. Espediente horrek bi karpeta ditu, bata digitala eta bestea fisikoa. Karpeta horietan, kasu bakoitzean lortu den informazio guztia jaso da, hau da, baimen informatua, biktimaren zinpeko aitorpena, idatziz edo audioan edo bideoan jasotako lekukotza, kasuari buruzko informazioa eman zuen argitalpenaren laburpena, medikuen txostenak eta auzitegiko txostenak, dokumentazio judiziala, hirugarrenen lekukotzak, eta abar.

- Espediente bakoitzean eskuragarri dagoen informazioa datu basera irauli da, kasuei buruzko azterketa estatistikoa egin ahal izateko.

C- Tratu txarrei eta torturei buruzko salaketen dokumentazioa, bilketa eta analisia.

- Artxiboak eta kontsultatutako iturri desberdinak berrikusi ondoren, lehen mailako iturri bakoitza dokumentatzeko eta horietara hurbiltzeko lanari ekiteko pertsonen errolda osatu zen, kasu bakoitzari buruz hasieran eskuragarri zegoen informazioa osatzeko eta berresteko xedez.

- Bildutako informazioa aztertu ondoren, datu garrantzitsuak datu basean sartu dira.
- Ondoren, azterketa estatistikoa eta datuen gurutzaketa egin da SPSS programaren bitartez.
- Aztertutako aldian, Nafarroan tortura edo tratu txarrak pairatu dituztela alegatu duten 24 pertsonaren hitzezko lekukotza jaso dugu audioan edo bideoan.

**Kasu guztiak eta azterlanaren lagina**

Ikerketa honen asmoa izan 1960-1978 aldian Nafarroan tortura edo tratu txarrak pairatu dituzten pertsona guztien unibertsoa aztertzea baina, azkenean, 169 kasu egon dira aztertutako laginean. Ikerketa taldearen iritziz, hedabideetan proiektuari ekinen zitzaiola ez iragartzeak eragotzi du, neurri batean, ukitutako hainbat pertsonak beren borondatez aurkeztea azterlan honetan parte hartzeko eskaera.

Aztertutako lagina lortzeko baliabide nagusia tortura edo tratu txarren biktimen identifikazioa izan da. Horretarako, zenbait erakundetan aztergai dugun aldian horrelako tratua jaso izanaren salatzaile gisa azaltzen ziren pertsonak identifikatu dira, eta/edo gai horri buruzko zenbait aztergairen zerrendetan agertzen direnak (Lazkaoko Beneditarren, Euskal Memoriaren edo Torturaren Aurkako Taldearen zerrendak). Dokumentuen lehen azterketa egin ondoren, proiekturako garrantzitsutzat jotako dokumentazioa hautatu, sailkatu eta digitalizatu dugu. Lortu eta aztertu dugun bibliografiatik eta hemerotekatik, banako laburpen digitalak egin ditugu, eta titular bakoitzaren espediente pertsonaletan sartu ditugu. Era berean, PDF formatu bihurtu ditugu beste programa informatiko batzuetan zeuden dokumentuak, datu basean sartzeko; guztira 1204 fitxategi lortu ditugu.

Ondoren, ikerketa taldeak lan nekeza izan du: ukitutako pertsona gehienak lokalizatzeko datuak biltzea. Jarduketa horiek egiteko Interneteko orriak, prentsa eta/edo hirugarren pertsonak erabili dira. Harremanetarako datuak lortu ondoren, biktimekin lehen aldiz harremanetan jartzeko telefonoa erabili da nagusiki, baina posta arrunta eta posta elektronikoa ere erabili dira. Lehen harreman horren helburua izan da IVAC/KREI egiten ari den proiektuaren berri ematea, eta beste xede hauek ere bete nahi izan dira:

1. Proiektuaren artxiboan haiei eta haien kasuei buruz dagoen informazioa ezagutzera ematea.
2. Pertsona bakoitzaren idatzizko berrespena lortzea egitateei buruz, baita baimen informatua ere, bakoitzaren kasua datu basean sartzeko, eta, datu base horretan adierazteko, besteak beste, ukituak anonimo izan nahi duen ala ez; nolanahi ere, konfidentzialtasuna bermatu da une oro.
3. Kasua osatzea eta dokumentatzea.
4. Jakitea dagokion pertsona prest ote dagoen proiektuan modu aktiboagoan laguntzeko, Istanbuleko protokoloan parte hartuz, baldin eta horretarako hautatzen badute, edo grabatutako elkarrizketa batean bere lekukotza emanez. Elkarrizketa hori tratu txarren eta tortura kasuen dokumentu funts

gisa geratuko da, bai azterlan honetarako, bai etorkizuneko urratsetarako eta ikerketetarako.

Gaineratu behar dugu errolda egitean muga garrantzitsuak izan ditugula biktimak lokalizatzeko; besteak beste muga hauek nabarmenduko ditugu:

- **Biktimei buruzko aurretiko erregistro sistematikorik ez izatea**. Hasierako errolda osatzeko tortura edo tratu txarren kasuei buruzko azterlan eta/edo zerrendetako dokumentazioan jasotako oinarrizko informazioa aztertu zen baina, edonola ere, informazio hori urria eta eskasa izan da. Horregatik, egiaztatutako ebidentziarik ez zegoenez, 35 kasu posible baztertu ziren eta 204 kasuko hasierako errolda 169 kasuko laginera murriztu da. Diktadurak gai askoren inguruan (besteak beste, tortura) ezarritako zentsurak ahalbidetu zuen gai horri buruzko informazio publikorik eta judizialik ez izatea.

- Aztertutako aldiaren eta gaur egungo garaiaren artean **igarotako denborak** zaildu egin du, kasu askotan, ukitutako pertsonekin harremanetan jarri ahal izatea, espedientearen titularraren izenean aurkitutako telefono zenbakiak baja emanda zeudelako askotan. Horretaz gain, ikerketa taldeak egiaztatu du proiektu honetan torturaren eta/edo tratu txarren kasuekin irekitako espedienteen titularretako 20 hilda daudela, gutxienez.

- **Parte hartzeko ukoa.** Biktimekin ezarritako harreman formalen bitartez, ikerketa taldeak egiaztatu du pertsona batzuek ez dutela modu aktiboan parte hartu nahi ikerketa honetan. Emandako argudio nagusiak izan dira gertatutakoa ahaztu nahi izatea, baita etorkizuneko errepresalien beldur izatea eta proiektu honekin ados ez egotea edo proiektu honekiko mesfidantza ere.

- **Alderdi pertsonalak.** Nabarmentzekoa da, halaber, kontaktatutako pertsona batzuek une zaila gainditu behar izan dutela jasandako tratu txarra berriro kontatu behar izan dutenean. Horren ondorioz, mobilizazio emozionalari aurre egin behar izan diote gertakariak oroitzean. Kontuan izan behar da kasu askotan gure deiaren aurretik ez zitzaiela biktimei entzun edo ez zirela gertakari horiek kontuan hartu.

Jarraian, errolda eratzeko eta lekukotzak biltzeko egindako lanaren emaitza jasotzen duen laburpen taula bat aurkeztuko dugu:

| | |
|---|---|
| Sortutako espedienteak | 204 |
| Baztertutako espedienteak, informazio nahikoa ez izateagatik | 35 |
| Estatistikoki aztertutako kasuen kopurua | 169 |
| Sortutako fitxategi digitalen kopurua | 1.204 |
| Hitzezko lekukotza kopurua | 24 |
| Idatzizko lekukotza kopurua | 12 |
| Berretsitako kasuen kopurua | 53 |

| | |
|---|---|
| Egindako Istanbuleko protokoloen kopurua (2 kasu) | 1 |
| Istanbuleko protokoloa egiteko zain dauden pertsonen kopurua (24 kasu) | 21 |

## 5.- Ikerketaren emaitzak

### 5.1.- Analisi estatistikoa

#### 5.1.1.- Helburuak eta metodoa

Atal honetan, azterketa kuantitatiboaren bitartez, erregistratutako kasuen kopurua eta haien banaketa aztertu nahi izan dira irizpide hauek kontuan hartuta: kasuetako pertsonen profil soziodemografikoa, gertakarien banaketa kronologikoa, lurralde banaketa (gertakariak zer probintziatan izan ziren), baita atxiloaldiaren iraupena ere. Gainera, salatutako gertakarietan inplikatutako polizia kidegoen desberdintasunak eta antzekotasunak aztertu ziren.

Halaber, kontakizunetan aipatu ziren tratu txarren eta torturen teknikak aztertu ziren. Horretarako, datu basean jasotako datuen azterketa estatistikoa egin zen. Azterketa hori funtsezko hiru irizpideren arabera baliozkotu zen: a) Lekuko bidezko froga elementuak b) Dokumentu bidezko froga elementuak c) Peritu frogaren elementuak. Analisi deskribatzaileak egin ziren, khi karratuaren probak eta maiztasunak kalkulatuta. Bildutako informazioa sentiberatasunez aztertzekoa zela kontuan hartuta, proiektuaren diseinu osoa ez ezik, datu basearen egitura ere Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/ EHU) etika batzordeari aurkeztu zitzaion, eta batzorde horrek onetsi egin zuen.

#### 5.1.2.- Laginaren ezaugarriak eta aztertutako kasuen berrespena

Datu basean 169 kasu daude guztira, 1960. urtetik 1978. urtera bitarteko aldian gertatutako egitateak salatu zituzten 153 pertsonari dagozkienak (ikus grafikoa). Kasuak salatzaileen generoaren arabera banatzean ikusten da gizonei buruzko kasu gehiago erregistratu direla. Kasu guztien 153 (salatutako kasu guztien % 90,5) 138 gizoni dagozkie (salatzaileen % 90,2). Bestalde, 16 kasu (% 9,5) 15 emakumeri buruzkoak ziren (salatzaile guztien % 9,8) (ikus grafikoa). Datu basean pertsona baino kasu gehiago daude pertsona batzuek behin baino gehiagotan salatu zutelako torturen edo tratu txarren biktima izan zirela. Kontuan hartuta kasu batzuek datuen erregistro handiagoa edo txikiagoa izan dezaketela (adibidez, atxiloketa gertatu zen probintzia edo beste batzuk), ehunekoaz gain, azterketa estatistikoan aipatzen diren kasuen maiztasuna ere emanen da.




*Tratu txarren edo torturen salaketei buruzko kasuak, generoaren arabera: ehunekoak.*

Kasuen erdietan baino gehiagotan, pertsonak Nafarroan jaioak ziren (n= 115; % 77,2); ondoren datoz Gipuzkoa (n= 23; % 13,6), Bizkaia (n= 4; % 2,4) eta Araba (n= 3; % 1,8). Halaber, Espainiako estatuko beste probintzia batzuetan jaio ziren pertsonen kasuak % 2,4 (n= 4) izan ziren. Bizilekua zuten probintziari dagokionez, goian aipatutako ordena bera da: % 23,7 (n= 40) Nafarroan bizi da, % 11,8 (n= 20) Gipuzkoan, % 2,4 (n= 4) Bizkaian eta % 0,6 (n= 1) Araban (gainerako 104 kasuetan ez dago informaziorik, zalantzak daudelako). Txosten honetan bildutako kasuen % 49,7k (n= 84) Polizia Nazionala inplikatzen dute eta % 33,1ek (n= 56) Guardia Zibila. Ez dago informaziorik erregistratutako 29 kasutan, inplikatutako polizia kidegoei buruz (ikus taula).

*Inplikatutako polizia kidegoak: maiztasunak eta ehunekoak.*

| | n | % |
|---|---|---|
| **Polizia Nazionala** | 84 | % 49,7 |
| **Guardia Zibila** | 56 | % 33,1 |
| **Informaziorik gabe, zalantzak daudelako** | 29 | % 17,2 |

Aztertutako guztizko kasuetatik, % 34,9 (n= 59) bide honen bitartez berretsi ziren: idatzizko 12 lekukotza lortu ziren, sinatutako 53 berrespen, hitzezko 24 lekukotza eta 11 berrespen salaketa judizialaren bitartez. Era berean, Istanbuleko Protokoloa duten 2 kasu daude (pertsona 1), baina beste 21 pertsonak (24 kasu) adierazi dute protokolo hori egin nahi dutela.

Denborari dagokionez, 1978an gertatutako kasu gehiago erregistratu dira; hori logikoa da, kontuan hartzen badugu zaila dela lehenagoko gertakariei buruzko informazioa biltzea. Kasuen denbora lerroa ondorengo grafikoan ikus daiteke.




*Kasuen urteko banaketa (1960-1978).*

Inplikatutako polizia kidegoei dagokienez, azterketa estatistikoak erakusten du Polizia Nazionalari buruzko kasu berretsi gehiago daudela, % 59,6 (n= 34) Guardia Zibilaren kasuan berretsitako kasuekin alderatuta (n= 23; % 40,4) (ikus grafikoa).




*Berrespenen banaketa polizia kidegoaren arabera: ehunekoak.*

*Kasuen urteko banaketa (1960-1978): kasuen berrespena eta kopurua polizia kidegoaren arabera*

| | PN | | GZ | |
|---|---|---|---|---|
| **Urtea** | Kasu kopurua | Berretsitako kasuak | Kasu kopurua | Berretsitako kasuak |
| **1960** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **1961** | 0 | 0 | 1 | 1 |
| **1962** | 1 | 0 | 1 | 0 |
| **1963** | 1 | 0 | 0 | 0 |
| **1964** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **1965** | 1 | 0 | 0 | 0 |
| **1966** | 2 | 2 | 0 | 0 |
| **1967** | 1 | 1 | 1 | 0 |
| **1968** | 1 | 1 | 8 | 4 |
| **1969** | 6 | 2 | 0 | 0 |
| **1970** | 1 | 0 | 2 | 2 |
| **1971** | 3 | 1 | 1 | 1 |
| **1972** | 3 | 1 | 8 | 3 |
| **1973** | 9 | 1 | 2 | 1 |
| **1974** | 7 | 6 | 2 | 0 |
| **1975** | 17 | 12 | 5 | 2 |
| **1976** | 4 | 2 | 6 | 4 |
| **1977** | 1 | 0 | 1 | 1 |
| **1978** | 26 | 5 | 18 | 4 |

*Polizia Nazionalari buruzko kasuen urteko banaketa: kasuen berrespena eta kopurua (maiztasunak).*



*Guardia Zibilari buruzko kasuen urteko banaketa: kasuen berrespena eta kopurua (maiztasunak).*




### 5.1.3.- Salatutako kasuen lurralde banaketa

169 kasuetatik, atxiloketen % 67,5 (n= 114) Nafarroan gertatu ziren; % 11,8 (n= 20), aldiz, Gipuzkoan. Bizkaian, atxiloketen % 4,7 (n= 8) egin ziren, eta % 0,6 (n= 1) Araban. Bestalde, erregistratutako kasuen % 7,7n (n= 13) estatuko beste probintzia batzuetan izan ziren atxiloketak. Ez dago 13 kasuri buruzko informaziorik (Ikus taula).

| | n | % |
|---|---|---|
| **Nafarroa** | 114 | % 67,5 |
| **Gipuzkoa** | 20 | % 11,8 |
| **Bizkaia** | 8 | % 4,7 |
| **Araba** | 1 | % 0,6 |
| **Beste batzuk** | 13 | % 7,7 |
| **Informaziorik gabe, zalantzak daudelako** | 13 | % 7,7 |

*Kasuak, atxiloketak egin ziren probintziaren arabera: maiztasunak eta ehunekoak.*

### 5.1.4.- Atxiloaldiaren iraupena

Aztertutako aldi osoan, eta erregistratutako kasuen azterketek erakusten dutenez, atxiloaldiaren batez besteko iraupena 1,93 egunekoa izan zen (n= 61; DT= 1,124), gutxienez egun 1 eta gehienez 28 egun. Esan dezakegu, halaber, deskribatutako kasuen % 50,8k egun 1etik 3ra bitarteko atxiloaldia izan zutela

batez beste, % 19,7k 4 egunetik 5era bitartekoa, % 14,8k 6 egunetik 10era bitartekoa. eta % 14,8k adierazi zuten 10 egunetik gora egon zirela atxilotuta (ikus grafikoa).

*Atxiloaldiaren iraupena: maiztasunak eta ehunekoak (n=61).*

| | n | % |
|---|---|---|
| **3 egun edo gutxiago** | 31 | % 50,8 |
| **4-5 egun** | 12 | % 19,7 |
| **6-10 egun** | 9 | % 14,8 |
